

# **EAEko ekonomiaren urteko txostena 2013**

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

**<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>**

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

[economia@ej-gv.es](mailto:economia@ej-gv.es)

[945-01 90 77](tel:945-01-90-77)

Argitaratzailea: Eusko Jurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saila  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

**AURKIBIDEA**


EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA .....	1
EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA .....	8
Munduko ekonomiaren bilakaera .....	8
Analisia herrialdeka .....	10
Espainiako ekonomia .....	14
EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA .....	16
EKOIZPEN ARLOAK.....	16
Sarrera .....	16
Lehen arloa .....	17
Industria .....	18
Eraikuntza .....	22
Zerbitzuak .....	23
ESKARIA .....	25
Sarrera .....	25
Gastua azken kontsumoan .....	26
Kapital eraketa gordina .....	28
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna .....	29
LAN MERKATUA .....	35
PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK .....	41
ARLO PUBLIKOA .....	49
FINANTZA ARLOA .....	52



## EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2013. urtean, EAEko ekonomiak berriro jaso zuen beherakada garrantzitsua BPGan, Eustatek %-1,2an kalkulatu duena. Balio horrek lau hamarrenetan leundu zuen aurreko urteko emaitza. Bi urtez jarraian jaitsierak bildu dira, 2010-2011 biurtekoaren susperraldi labur eta osatu gabearen ondoren. Periferiako herrialde batzuetako desorekak zuzentzeko ezarri ziren doikuntza gogorreko politikek, espero zen bezala, beherakada biziak ekarri zizkioten ekonomiaren jarduerari. EAEko barne eskariak ahultasun hori nabaritu zuen eta %-1,5eko balioa jaso zuen urteko batez bestekoan, hots, 2012an baino ia puntu oso bat hobea. Halaber, kanpo eskariak ekarpen positiboa egin zion berriro ekonomiari, baina aurreko urteetakoa baino askoz txikiagoa. Ahultasuna Europako herrialde gehienetara hedatu izanak zailago egin zuen krisitik kanpo arloaren bidetik irtetea. Hala eta guztiz ere, hiruhilekoz hiruhileko jaitsieraren tamaina gero eta txikiagoa izan zen eta lehen hiruhilekoan urte arteko aldakuntza tasa %-1,9 izan bazen ere, azken laurdenean jaso zen datua %-0,3 izan zen. Ingurunekeo ekonomiekin alderatuta, EAEren hazkunde tasa Estatuarenaren antzekoa izan zen (%-1,2), baina urrun zegoen Europar Batasuneko (%0,1) eta Euroguneko (%-0,4) batez bestekoetatik, nahiz eta bi eremu horiek ere ahultasuneko irudia eskaini zuten.

**EAEko eta munduko ekonomiaren hazkundera**  
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta NDF.

## 2013ko urteko txostena

---

Europako ekonomien arazoek eragin mugatua izan zuten munduko ekonomian, 2013an %3,0ko gehikuntza tasa izan baitzuen, hau da, aurreko urtekoa baino bi hamarren bakarrik gutxiago. Berriro ere, garatzen ari diren herrialdeek egin zioten ekarpen handiena munduko hazkunderari, baina moteltze orokorraren erantzuleak ere izan ziren. Hain zuzen ere, oro har, garapen bidean dauden herrialdeak %4,7 hazi ziren, aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago. Herrialde garatuen multzoak, berriz, %1,3 handitu zuen bere BPGa, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago. Azaleratzen ari diren herrialdeen moteltzea bereziki Errusian eta Mexikon gauzatu zen, bi herrialde horietako hazkunde tasak 2012koak baino askoz ere txikiagoak izan zirelako. Aitzitik, Txinak erritmoari eutsi zion eta aurreko urteko %7,7 hura berdindu zuen, nahiz eta eredu aldaketa sakon batean murgilduta dagoen, barne kontsumoak esportazioen papera ordezkatzeko duena.

### EKONOMIA EREMUEK PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>49,6</b>	<b>1,3</b>	<b>0,6</b>	<b>Garatu gabeak</b>	<b>50,4</b>	<b>4,7</b>	<b>2,4</b>
AEB	19,3	1,9	0,4	Txina	15,4	7,7	1,2
Eurogunea	13,1	-0,5	-0,1	India	5,8	4,4	0,3
Japonia	5,4	1,5	0,1	Errusia	2,9	1,3	0,0
Erresuma Batua	2,7	1,8	0,0	Brasil	2,8	2,3	0,1
Kanada	1,8	2,0	0,0	Mexiko	2,1	1,1	0,0
Besteak	7,3	2,5	0,2	Besteak	21,4	3,7	0,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Ekonomia garatuen artean, oso bestelako egoerak bizi ziren. Alde batetik, AEBek hazkunde tasa esanguratsua (%1,9) lortu zuten, baina aurreko urtekoa baino ia puntu oso bat gutxiago. Inbertsio pribatuak eta arlo publikoaren beste jaitziera batek, aurrekoa baino are handiagoa izan zena, baldintzatu zuten moteltze hura. Beste aldetik, Japoniak tonu hedakorrari eutsi zion eta %1,5eko gehikuntza lortu zuen, herrialde hartako lehen ministroak abiarazitako Abenomics-ari esker, hots, zerga alorreko pizgarriak, kreditu erraztasunak eta egiturazko erreformak biltzen dituen neurri sorta bati esker. Orobat, %2ko inflazio helburua ezarri zen, deflazioaren itzala behin-betiko atzean uzteko.

Txanponaren ifrentzua Europar Batasunari egokitu zitzaion, aurreko urteko jaitsieraren ondoren, %0,1eko gehikuntza hutsala baino ez baitzuen lortu. Ekonomia eremu horren barnean, emaitza etsipengarrienak diru bera erabiltzen duten herrialdeek jaso zituzten. Aitzitik, Erresuma Batuak %1,9ko tasa batekin harridura sortu zuen, azken sei urteko baliorik gorena delako. Beste muturrean, Euroguneak bigarren jaitsiera jarraitua bildu zuen eta %-0,5eko tasa izan zuen 2013an. Herrialde garrantzitsu guztiek begi bistako ahultasuna erakutsi zuten, baina haietako batzuek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten, oso apalak baziren ere. Alemania buruan kokatu zen, %0,4ko tasa batekin, eta Frantzia %0,2 baino ez zen hazi. Askoz ere okerragoak izan ziren periferiako herrialdeen emaitzak, desorekei aurre egin behar izan zirelako eta kontu publikoak kontrolatzeko neurriak ezarri. Horiek horrela izanda, bai Espainiak (%-1,2) bai Italiak (%-1,9) nabarmen gutxitu zuten BPGa.

### BPG ERREALAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>2,7</b>	<b>-0,4</b>	<b>5,2</b>	<b>3,9</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>
AEB	-0,3	-2,8	2,5	1,8	2,8	1,9
Japonia	-1,0	-5,5	4,7	-0,5	1,4	1,5
Txina	9,6	9,2	10,4	9,3	7,7	7,7
Europar Batasuna	0,4	-4,5	2,0	1,7	-0,4	0,1
- Alemania	1,1	-5,1	4,0	3,3	0,7	0,4
- Frantzia	-0,1	-3,1	1,7	2,0	0,0	0,2
- Erresuma Batua	-0,8	-5,2	1,7	1,1	0,3	1,9
- Italia	-1,2	-5,5	1,7	0,4	-2,4	-1,9
- Espainia	0,9	-3,7	-0,3	0,4	-1,6	-1,2
- EAE	1,3	-3,9	0,4	0,3	-1,6	-1,2

Iturria: NDF (munduko ekonomia eta Txina), Eurostat eta Eustat (EAE).

EAE ez zen salbuespen bat Euroguneko testuinguru horretan eta 2013an berriro murriztu zuen bere produktua (%-1,2). Beraz, 2008an hasitako krisialdian, BPGa bi unetan jaitsi da (2009an eta 2012-2013 biurtekoan) eta bi urtetan lortu du hazkunde txiki bat (2010ean eta 2011n). Urte horien pilaketan, BPG errealak sei puntu galdu ditu. Terminonomenetan, 2013ko emaitza aurreko urtekoaren oso antzekoa izan zen, nahiz eta oraindik %4 berreskuratu behar duen 2008an lortu zuen ekoizpena berdintzeko. Hala ere, EAEko ekonomiak

## 2013ko urteko txostena

---


hiruhilekoz hiruhileko marraztu zuen ibilbideak balio positiboak laster eskuratuko zirela iragartzen zuen, 2014ko lehen hiruhilekoan gertatu den bezala.

Aipatu diren BPG errealaren beherakadek beste galera bat ekarri zioten enplegu mailari, %2,1koa. Beraz, bost urtez jarraian murriztu da lanpostuen kopurua dagoeneko. Epealdi horretan 2008an zeuden enplegu guztietatik %10 baino zertxobait gehiago desagertu da. Tasa horrek esan nahi du guztira lanaldi osoko 100.000 lanpostu baino apur bat gehiago galdu direla. Haietatik, 2013. urtean 19.000 desagertu ziren. Beste urte batez, industriak pairatu zuen lanpostuen galerarik handiena (8.500 lanpostu), baina eraikuntzak jaso zuen jaitsiera handiena ehunekotan (%-10,8). Aurreko guztiak %14,6ra igoarazi zuen langabezia tasa urteko batez bestekoan, 2012ko datua 2,5 puntutan gaindituz.

### BPGren eta enpleguaren bilakaera EAEn

BPG. 2008 = 100

Enplegua. 2008 = 100



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.


EAEko BPGak 2013an lortu zuen lau hamarreneko moteltzearen jatorria barne eskariaren portaera ez hain negatiboan dago, 2013an %1,5 murriztu baitzen urteko batez bestekoan, aurreko urtekoa baino ia puntu bat gutxiago. Aitzitik, kanpo eskariak hazkunderari eginiko ekarpena lau hamarrenetara mugatu zen, aurreko urtekoaren erdia. Bilakaera hori lotuta dago EAEko eta Europako ekonomiek, hiruhilekoak aurrera zihoazen heinean, ezagutu zuten



susperraldira, eta bai esportazioetan (%1,1) bai inportazioetan (%0,5) gehikuntzak eragin zituztenak, 2012an bi magnitude horiek beherakada biziak jaso eta gero.

### EAEko BPGari eginiko ekarpenak

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren bi osagai nagusiek jaitsiera erritmoa leundu zuten 2013an. Hain zuzen ere, azken kontsumoan eginiko gastuak %-1,0ko balioa jaso zuen, aurreko urteko %-1,2aren aldean. Kontsumo pribatua gutxiago murriztu zen (%-1,0) eta publikoak, ordea, %-1,3ra areagotu zuen bere jaitsiera tasa. Beste aldetik, kapitaleko eraketa gordinak %-3,2ko aldakuntza tasa jaso zuen, aurrekoa baino hiru puntu hobea. Hala eraikuntzan eginiko inbertsioak nola, bereziki, ekipamendurako ondasunetan eginikoak beherakada erritmo biziak moteldu zituzten 2013an.

Ekonomiaren arloak aztertuta, guztiek balio erantsia galdu dutela azpimarratu behar da, nahiz eta bakoitzaren intentsitatea ezberdina izan zen. Esate baterako, lehen arloak, gorabehera handiak jaso ohi dituen sektorea baita, %6,1eko jaitsiera jaso zuen, aurreko hiru urteetako hazkunde bizien ondoren. Eraikuntzak, berriz, %5,0 gutxitu zuen balio erantsia eta dagoeneko bost urtez jarraian tamaina murriztu du. Halaber, garrantzitsua izan zen industriaren aldakuntza tasa (%-1,9), baina aurreko balio negatiboa ia bi puntutan leundu zuen.

## 2013ko urteko txostena

Zerbitzuei dagokienez, oro har %0,6 murriztu zuten balio erantsia, hots, 2012an baino bi hamarren gehiago. Oraindik emaitza onena eskuratu zuen sektorea izan arren, serie historiko osoan aurkitu daitekeen bigarren jaitsiera jarraitua da. Multzo hori osatzen duten hiru taldeek balio erantsia gutxitu zuten. Bereziki deigarria da administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen atalaren bilakaera, lehenengo aldiz aldakuntza tasa negatibo bat jaso zuelako, txikia izan bazen ere (%-0,3). Beste aldetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barnean hartzen dituen atalak norabide negatiboan sakondu zuten, %-1,4 arte, eta hiru urte dira dagoeneko jaitsierak kateatzen, barne eskari ahularen ondorioz. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek murrizketa txikia (%-0,2) izan zuten.

### EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Barneko azken kontsumoa	1,9	-1,7	1,1	-0,4	-1,2	-1,0
Familien kontsumoko gastua	0,6	-3,6	0,8	-0,7	-1,3	-1,0
Herri administrazioen kontsumoa	7,0	5,0	2,2	0,6	-0,8	-1,3
Kapital eraketa gordina	-1,8	-14,3	-4,3	-2,3	-6,3	-3,2
Ekipamenduko ondasunak	-1,0	-23,2	-2,6	2,9	-5,5	-1,2
Gainontzekoa	-2,1	-11,5	-4,9	-4,4	-6,6	-4,1
Barne eskaria	0,8	-5,4	-0,3	-0,9	-2,4	-1,5
Esportazioak	-0,2	-13,4	7,7	0,9	-3,3	1,1
Inportazioak	-0,8	-14,5	5,9	-0,9	-4,2	0,5
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>1,3</b>	<b>-3,9</b>	<b>0,4</b>	<b>0,3</b>	<b>-1,6</b>	<b>-1,2</b>
Lehen arloa	-6,1	-4,8	20,8	7,9	8,7	-6,1
Industria	-0,7	-12,9	2,0	1,6	-3,7	-1,9
Eraikuntza	-5,8	-7,4	-7,9	-7,9	-8,2	-5,0
Zerbitzuak	3,4	0,0	0,7	0,9	-0,4	-0,6
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	1,2	-2,8	0,4	-0,6	-1,1	-1,4
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	6,2	3,4	3,8	3,5	0,4	-0,3
Gainontzeko zerbitzuak	3,4	0,0	-0,8	0,4	-0,3	-0,2
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	1,2	-4,3	0,3	0,3	-1,7	-1,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,4	-0,1	1,9	-0,2	-1,1	-0,7

Iturria: Eustat.

BPGaren eta enpleguaren tasa negatiboak konbinatuta, lan faktorearen itxurazko produktibitatearen igoera %1,0an geratu zen. Balio hori apal samarra da oraingoa bezalako atzeraldi sakon baterako eta 1995etik jaso den batez besteko emaitzatik (%1,1) zertxobait beherago dago. Horrek pentsarazten du enpresek ez dutela langile soberarik. Ohikoa denez, sektore bakoitzak portaera ezberdina erakutsi zuen produktibitatearen alorrean. Izan ere, zerbitzuek ia erritmo berean gutxitu zituzten ekoizpena eta enplegua. Horren ondorioz, zerbitzuen produktibitatea %-0,1 bakarrik aldatu zen. Aitzitik, industriak nabarmen murriztu zuen enplegua eta produktibitatea %2,5 hazi zen, sektore horretako ohiko balioak gaindituz (1995etik lortutako batez bestekoa %2,0 izan da). Azkenik, eraikuntzak ezustea eman zuen berriro %6,5eko produktibitate irabazi batekin, berez eraginkortasunaren gehikuntza tasak oso apalak izaten direnean (%0,4 bakarrik 1995etik).

Prezioei dagokienez, moteltzeko joera begi bistakoa da oraindik. Hain zuzen ere, BPGaren deflatorea %1,2 hazi zen 2013an, hau da, aurreko urtekoa baino puntu bat gehiago. Hala ere, gogoratu behar da funtzionarioen aparteko ordainketak eragin handia izan duela kontsumo publikoaren deflatorean, beherantz 2012an (%-3,3) eta gorantz 2013an (%1,8). Beste aldetik, KPIa %1,6 hazi zen urteko batez bestekoan, aurreko bi urteetan baino askoz ere gutxiago. Halaber, 2012ko irailean onartu zen BEZaren igoeraren goranzko eragina konpentsatuta, KPIak erritmoa leundu zuen eta %0,6an amaitu zuen urtea, eta tasa horretan jarraitu du 2014ko lehen hilekoetan ere.

### EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (EB28=100)	134,0	134,2	131,1	129,5	129,4	127,7
BPG erreala merkatu prezioetan	1,3	-3,9	0,4	0,3	-1,6	-1,2
Enplegua	0,2	-4,0	-1,3	-0,9	-2,7	-2,1
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	1,1	0,1	1,8	1,2	1,1	1,0
BPG nominala merkatu prezioetan	2,3	-5,2	1,8	0,9	-1,5	0,0
BPGren deflatorea	1,0	-1,3	1,3	0,6	0,2	1,2
KPI (urteko batez bestekoa)	4,1	0,3	1,7	3,1	2,3	1,6
Kostu guztiak langile bakoitzeko	4,7	2,8	1,4	0,6	0,7	1,7
Langabezia tasa	3,8	8,1	9,2	10,8	12,1	14,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

## EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

### Munduko ekonomiaren bilakaera

Ekonomia krisia hasi eta bost urtera, munduko ekonomiak hazkunde erritmo motela izan zuen 2013an. Hain zuzen ere, NDFren lehen estimazioen arabera, munduko jarduera %3,0 areagotu zen. Tasa hori aurreko urtean jasotakoaren antzekoa da (%3,2) eta adierazten du 2010ean hasi zen beheranzko norabideak jarraipena izan zuela, nahiz eta moteltzeko erritmo horretan leuntze garrantzitsua nabaritu zen. Hala eta guztiz ere, zenbaki horiek esanguratsuak dira zentzu honetan: ekonomia aurreratuek eta garatzen ari direnek paperak trukatu dituzte munduko jardueraren bizitasunari dagokionez. Izan ere, aurreratuek suspertzeko joera finkatu zuten eta garatzen ari direnek, ordea, jarduera erritmoa apaldu zuten. Prezioei dagokienez, mundu osoan 2012an hasi zen inflazio moteltzea 2013ra ere luzatu zen, baina portaera ezberdinak hauteman ziren herrialde batzuetan eta besteetan.


### EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Mundua	3,2	3,0	3,9	3,6	---	---
ELGE	1,5	1,3	2,2	1,6	8,0	7,9
AEB	2,8	1,9	2,1	1,5	8,1	7,4
Japonia	1,4	1,5	0,0	0,4	4,3	4,0
EB	-0,4	0,1	2,6	1,5	10,5	10,8
Alemania	0,7	0,4	2,1	1,6	5,5	5,3
Frantzia	0,0	0,2	2,0	1,0	9,8	10,3
Erresuma Batua	0,3	1,9	2,8	2,6	7,9	7,5
Italia	-2,4	-1,9	3,3	1,3	10,7	12,2
Espainia	-1,6	-1,2	2,4	1,4	25,0	26,4
Garapen bidean dauden herrialdeak	5,1	4,7	6,0	5,8	---	---
Asia	6,7	6,5	4,6	4,5	---	---
Txina	7,7	7,7	2,6	2,6	4,1	4,1
Amerika latino eta Karibea	3,0	2,7	6,0	6,8	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	1,4	2,8	5,8	4,1	---	---


Iturria: ELGE, NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

**Barne produktu gordina**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**


Ekonomia garatuak




Azaleratzen ari diren ekonomiak



Europar Batasuna



AEB



Iturria: NDF eta Eurostat.

Izan ere, azaleratzen ari diren ekonomiek nahiko ondo eutsi zioten krisiari eta bizitasun nabarmenaz suspertzea lortu zuten, baina 2013an aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago hazi ziren. Ekonomia aurreratuak urratsez urrats suspertzen ari ziren testuinguru batean esportazioak areagotu baziren ere, inportazioak are gehiago hazi ziren eta kanpo eskariaren ekarpena txikiagoa izan zen. Halaber, barne eskariak aurreko sendotasunari atxiki zion, baina bizitasuna galdu zuen egiturazko arazo handiak zituzten herrialdeetan, batez ere Indian eta

## 2013ko urteko txostena

---

Indonesian, moneta eta zerga politikak gogortu zirelako. Aurrekoaren ondorioz, eremu horren hazkunde tasa %4,7an kokatu zen, krisiaren aurreko urteetan %8tik gorako emaitzetatik oso urrun dagoen erritmo bat delarik.

Ekonomia aurreratuek, ordea, egin zituzten doikuntzen ondoren eta zeuzkaten desorekak zuzenduta, munduko ekonomiaren bultzagile papera berreskuratu zuten, neurri batean. Zehazkiago adierazita, talde hori %1,3 hazi zen urteko batez bestekoan (%1,4 aurreko urtean), AEBak buru zirelarik. Hala ere, urte arteko hazkunde erritmoa lehen hiruhilabeteko %0,8tik azkeneko %2,0ra bizkortu zen, ekonomia jarduera sendotu zen heinean. Eurogunean izan ezik, barne eskaria izan zen BPGaren bultzagile behinena, kontsumo pribatua eta inbertsioan oinarrituta. Bizkortzeko joera orokorra izan bazen ere, abiatzeko puntua herrialde batzuetan eta besteetan ezberdina izateak alde handiak erakutsi zituen hazkunde tasetan. Horiek horrela izanda, lortu ziren gehikuntza tasak AEBen %1,9tik Euroguneko %-0,4ra bitartean kokatu ziren.

Salneurrien bilakaerari dagokionez, azpimarratu behar da inflazio tasak etengabe apaldu zirela ekonomia aurreratuetan, hazkundera suspertzen ari zen eta moneta politika egokitzaileren testuinguru batean. Izan ere, jaitsiera ekonomia aurreratu guztietara hedatu zen, salbuespena Japonia izan zelarik. Garapen bidean dauden ekonomien artean, bilakaera heterogeneoagoa izan zen. Prezioak gutxi hazi ziren Ekialdeko Europan, nahiko apal igo ziren Asian eta Amerika Latinoan eta %6aren eta %9aren artean kokatu ziren beste herrialde batzuetan, hala nola Brasilen, Indian eta Indonesian.

### **Analisisa herrialdeka**

2013a egonkortasuneko urtea izan zen Txinan. Hain zuzen ere, herrialde horrek jaso zuen hazkunde tasak aurreko urtekoa berdindu zuen, %7,7. Hala ere, azken hamalau urteko txikiena izan zen. Datu horrek baieztatzen du munduko bigarren ekonomiaren etengabeko hoztea, bere hazkunde ereduak nolabaiteko agortzea izan duelako. Orobat, barne eskarian oinarritutako beste hazkunde eredu batera igarotzeko beharra baieztatzen du. Zehazkiago adierazita, nazioarteko ingurunearen ahultasunak esportazioen erritmoa moteldu zuen eta kanpo arloaren ekarpen negatiboa, baina txikia, izatea ahalbidetu zuen. Dena dela, inbertsioa izan zen hazkunderaren motor nagusia, ondoren kontsumoa kokatu zelarik. Horiek horrela izan ziren arren, bi agregatu horien gorakadak ez ziren nahiko izan Asiako erraldoiak aurreko urtean

baino gehiago hazi zedin. Kontsumoko prezioen urte arteko aldakuntza tasa %2,6an kokatu zen berriro, 2012ko emaitzaren aldean inolako aldakuntzarik gabe eta Txinako gobernuak urte horretarako ezarri zuen %3,5eko helburuaren oso azpitik. Langabezia tasa, berriz, biztanleria aktiboaren %4,1ean kokatu zen berriro, hots, aurreko bi urteetan markatu zuen ehuneko berean.

Estatubatuar ekonomiaren susperraldiak aurrera egin zuen 2013an, baina 2012an baino erritmo apalagoan. Izan ere, bertako BPGa %1,9 hazi zen, aurreko urteko %2,8aren aldean. Urteko lehen seihilekoan, geldotasuna zen nagusi ekonomia jardueran eta begi bistakoa zen 2012an bizi zen susperraldi bizia ez zegoela behar bezala finkatuta. Hala eta guztiz ere, susmo horiek baztertuta geratu ziren bigarren seihilekoan lortutako gorakada garrantzitsuari esker. Hain zuzen ere, kontsumo eta inbertsio pribatuak ekonomia jardueraren bultzagile nagusiak izan ziren, lan merkatuaren hobekuntzek –langabezia tasa %7,4ra jaitsi zen, azken bost urteko emaitzarik onena baita- etxebizitzaren arloaren susperraldiak, azken hiru urteko ekarpenik handiena egin baitzuen, eta moneta politika egokitzailerik batek lagunduta.


Beste aldetik, kanpo arloak ere ekonomia jardueraren hazkundera hamarren bat ekarri zion, esportazioek erakutsi zuten bultzadari esker. Prezioen bilakaerari dagokionez, KPI indizea %1,5era jaitsi zen aurreko urtean jasotako %2,1etik, energiaren salneurriak merkatu zirelako eta erabili gabeko ekoizpen ahalmena oraindik altu samarra zelako. Bi arrazoi horiek lagundu zuten inflazioaren azpiko presioak kontrolatzeko helburuan.

Japonian, 2012an hasi zen suspertzeko norabidea finkatuta geratu zen 2013an, %1,5eko hazkunde tasa bat lortuta, hots, aurreko urtekoa baino hamarren bat gehiago. AEBetan ez bezala, Japoniako hazkunde indartsua izan zen urteko lehen seihilekoan eta bizitasuna galdu zuen 2013ko azken zatian. Bizitasunaren oinarria barne eskarian egon zen. Izan ere, moneta eta zerga politika egokitzailerik kontsumo pribatua eta inbertsioa piztu zituzten, eta prezioek hazkunde tasa positiboak berreskuratzea ahalbidetu zuten. Zehazkiago, KPIa %0,4an kokatu zen, 2008. urtetik eskuratu duten lehen gehikuntza tasa positiboa delarik. Yenaren balio galerak esportazioak areagotu zituen eta hazkunde positiboak berreskuratu zituzten. Hala ere, energia alorreko inportazioen kostua ere handitu zuten eta horrek inoizko merkataritza defizit handiena ekarri zuen berarekin, 81.705 milioi eurokoa. Langabezia tasa %4,0ra jaitsi zen 2013an, hots, 2.700.000 langabe baino gutxiago zeuden. Tasa hori herrialde garatuetan aurkitu daitekeen txikienetako bat da.


# 2013ko urteko txostena

## BPGaren bilakaera zenbait herrialdetan Urte arteko aldakuntza tasak


Frantzia




Alemania




Erresuma Batua




Japonia



India



Txina



Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.



Europar Batasuna osatzen duten 28 herrialdeetatik hamar tasa negatibotan murgilduta zeuden oraindik 2013an. Hala ere, haietatik zortzik –Txipre eta Finlandia izan ziren salbuespenak-jaitsiera erritmoa leundu zuten. Lehen hiruhilekoan aldakuntza handirik egon ez bazen ere, ekonomian zegoen konfiantza, finantza merkatuetako giroa eta finantzaziorako baldintzak hobetu izanak lagundu zuen 2013ko bigarren hiruhilekotik Europako ekonomiak hazkunde tasa positiboak berreskuratzen. Horren ondorioz, urte osoko batez besteko gehikuntza tasa kontinente zaharrarentzat %0,1 izan zen, krisi ekonomikoaren aurreko urteetan lortu zen batez besteko hazkunde hartatik (%2,4) oso urrun dagoelarik. Kanpo arloa, eta bereziki esportazioen portaera ona, dago hazkunde tasa horren atzean, zeren eta bai kontsumo pribatuak bai inbertsioak hamarrenak kendu baitzizkioten jarduerari.

Zehazkiago adierazita, Alemaniak hazkunde erritmoa apaldu zuen laugarren urtez jarraian eta %0,4 hazi zen, esportazioen bultzada galgatu zelako eta inbertsioak erritmoa moteldu zuelako. Frantziak, berriz, barne eskariaren tonua berreskuratzea lortu zuen, baina ez indar handiz eta, horren ondorioz, hazkunde tasa hutsala eskuratu zuen, %0,2koa. Aitzitik, Erresuma Batua izan zen Europar Batasuneko bultzatzaile nagusia, kontsumo pribatuaren sendotasunari esker. Hain zuzen ere, Erresuma Batuaren bilakaera Europar Batasunean hain garrantzitsua izan zen, ezen Euroguneak –bertan ez baitago herrialde hori- ez baitzituen tasa positiboak berreskuratu 2013ko azken hiruhilekoa arte, eta urte osoko balantzea tasa negatibotan (%-0,4) murgilduta egon zen berriro.

Hoberantz egin zuen arren, ezin da esan Europar Batasuneko susperraldia erabatekoa denik. Langabezia oso maila altuan egon zen oraindik. Kasu batzuetan egoera guztiz asaldagarria izan zen, hala nola Greziarena (%27,3), non gazteen langabezia tasa %61era iritsi baita, Espainiarena (%26,4) edo Portugalena (%16,5). Alde positiboan kokatu ziren Austria, Alemania eta Luxenburgo, besteak beste, langabezia tasak %5,0aren eta %5,5aren artean egon zirelako, aurreko urtearen aldean igoera txikia ezagutu zuten arren. Aurrekoaren ondorioz, Europar Batasuneko langabezia tasa %10,8ra igo zen, eremua osatu zenetik inoiz jaso den altuena baita, eta langabeen kopurua 26.388.000 lagunetara iritsi zen.

Susperraldiaren inguruan zegoen beste ziurgabetasun bat inflazio apala izan zen. 2013an, KPIa %1,5era jaitsi zen eta moteltzeko bigarren urte jarraitua kateatu zuen. Herrialde gehienak Europako Banku Zentralak (EBZ) helburutzat hartu duen %2,0aren azpian edo zenbaki horretatik hurbil kokatu ziren. Nabarmentzekoak dira Greziaren datua, %-0,9ko deflazioarekin, eta Letoniarena, prezioak ez zirelako hazi.

### Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomiak atzeraldian sartuta jarraitu zuen 2013. urtean, baina urteko azken zatian hazkunde positiboetatik hurbil ibili zen. Hain zuzen ere, Espainiak %1,2 egin zuen atzera urteko batez bestekoan, aurreko ekitaldian baino lau hamarren gutxiago, eta europar herrialdeen artean azken tokietan segitu zuen. Nazio eskariak ekonomiaren hazkundera lastatu zuen berriro, baina 2012an baino gutxiago (%-2,7 izan zen 2013an eta %-4,1, berriz, 2012an. Izan ere, barne eskariaren agregatu guztiek, salbuespena ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa delarik, aldakuntza tasa negatibotan jarraitu zuten, jaitsiera erritmoa leundu zuten arren. Kanpo eskariak, berriz, bilakaera ona izan zuen, esportazioak nabarmen areagotu zirelako eta inportazioak suspertu zirelako. Horren ondorioz, kanpo eskariaren ekarpena txikiagoa izan zen, 1,5 puntukoa, aurreko urtean 2,5 puntu ekarri zizkion bitartean. Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek behera egin zuten, lehen arloak eta lanbide jarduerak izan ezik, eta haietako gehienek 2012koak baino aldakuntza tasa okerragoak ezagutu zituzten.

Enplegua galtzeko erritmoa moteldu zen 2013an. Hain zuzen ere, enplegua %3,4 murriztu zen urteko batez bestekoan. Zenbateko horrek adierazten du lanaldi osoko 559.000 lanpostu baliokide baino gehiago galdu zirela urte horretan. Dena dela, enpleguak nolabaiteko hobekuntza erakutsi zuen, beheranzko erritmoa 1,4 puntu gutxitu zuelako. Zehazki, finantza eta aseguru jarduerekin zerikusia duen zerbitzuetako adarrak bakarrik sortu zuen enplegua. Gainontzeko jarduera guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, landunen kopurua murriztu zuten. Azpimarratzekoa da eraikuntzaren egoera kaskarra, enplegua %12aren inguruan gutxitu zelako. Orobat, oso garrantzitsua izan zen higiezinaren jardueretan gertatu zen lanpostuen galera (%-8,2).

Prezioen bilakaerari dagokionez, Europar Batasuneko herrialde gehienetan gertatu zen bezala, KPI indizea nabarmen apaldu zen, eta 2013ko balantzea %1,4an kokatu zen, 2012ko emaitza baino puntu bat beherago. Hazkunde erritmoa gutxitzeko joera hori nabarmenagoa izan zen urritik aurrera, urtebete bat lehenago BEZ zergan ezarri ziren aldaketek sortu zuten eragina desagertu ondoren, eta lehenengo aldiz lau urteko epealdian urte arteko tasa negatibo bat jaso zen (%-0,1) prezioen bilakaeran. BEZaren eragina kenduta, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien merkatzeak, erregaien salneurrien jaitsierak eta, neurri txikiagoan, unibertsitateetako tasen igoerak eragina galdu izanak ere beheranzko joera hori azaltzen dute.

Azkenik, administrazio publikoek, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren datuen arabera, 67.755 milioi euroko defizit publiko batekin amaitu zuten 2013. urtea, kontabilitate nazionaleko terminoetan. Zenbaki hori BPGaren %6,62 da. Kopuru horretan ez dira kontuan hartzen bankari emandako diru laguntzak. Beraz, Bruselak ezarri zuen helburua (%6,5) hamarren luze bategatik ez zen bete. Bankari emandako diru laguntzak kontuan hartuta, defizit publikoa BPGaren %7,08 izan zen, azken horien BPGaren %0,41 izan zirelako.

### ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010(P)	2011(P)	2012(A)	2013(A)
Azken kontsumoko gastua	1,0	-1,8	0,5	-1,0	-3,3	-2,1
-Familien gastua kontsumoan	-0,6	-3,8	0,1	-1,2	-2,8	-2,1
-Administrazioaren gastua kontsumoan	5,9	3,7	1,5	-0,5	-4,8	-2,3
Kapital eraketa gordina	-4,7	-18,0	-5,5	-5,4	-7,0	-5,1
Esportazioak	-1,0	-10,0	11,7	7,6	2,1	4,9
Inportazioak	-5,2	-17,2	9,3	-0,1	-5,7	0,4
<b>BPG</b>	<b>0,9</b>	<b>-3,8</b>	<b>-0,2</b>	<b>0,1</b>	<b>-1,6</b>	<b>-1,2</b>
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	-2,7	-3,3	1,9	5,6	-10,9	1,1
Erauzketa industriari eta manufaktura industriari	-2,1	-11,4	7,1	2,7	-0,5	-1,2
Eraikuntza	-0,2	-8,2	-16,5	-9,0	-8,6	-7,7
Txikizkako eta handizkako merkataritza	0,4	-2,6	1,8	1,3	0,5	-0,2
Informazioa eta komunikabideak	1,5	0,9	6,2	0,3	0,9	-0,3
Finantza eta aseguru jarduerak	2,8	-4,0	-3,5	-3,2	-2,8	-3,3
Higiezin jarduerak	2,1	0,0	-1,2	3,0	1,1	-0,2
Jarduera prof., zientifikoak eta teknikoak	2,3	-2,6	-0,3	5,3	-1,9	0,0
Administrazio Publikoak defentsa, hezkuntza	5,1	2,3	2,4	1,1	-0,5	-0,6
Jarduera artistikoak eta olgetak	2,0	0,2	0,3	0,2	-1,7	-0,9
Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,3	-5,4	-0,6	-6,1	-4,9	-1,2
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	4,1	-0,3	1,8	3,2	2,4	1,4
-Enplegua	-0,2	-6,3	-2,5	-1,7	-4,8	-3,4
-Administrazio publikoaren defizita (BPG %a)	-4,5	-11,1	-9,6	-9,6	-10,6	-7,1

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE eta Ogasun eta Administrazio Ministerioa.

### EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

#### Ekoizpen arloak

##### Sarrera

2013an, EAEko ekonomiak azken urteetan markatu zuen narriadura leundu zuen eta suspertzeko joera hori urratsez urrats gauzatu zen hiruhilekoak aurrera zihoazen heinean. Batez bestekoan, BPGaren hazkunde tasa %-1,2 izan zen, 2012an jaso zuen %-1,6aren ondoren. Hala ere, eta urte arteko tasa negatiboa izan zen arren, azpimarratu behar da 2013ko bigarren seihilekoan hiruhileko arteko tasa positiboak lortu zirela, lehenengo aldiz 2011tik. Datu horiek igurikimen baikorrak ekarri zituzten ekonomiaren susperraldiaz, nahiz eta adierazle guztiek seinalatzen zuten hobekuntza astiro gauzatuko zela eta ahula izango zela. Termino nominaletan, BPGak ez zuen inolako hazkunderik izan.

#### EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Lehen arloa	8,7	-6,1	-0,3	-3,7	9,1	-2,4
Industria	-3,7	-1,9	-4,6	-4,3	1,0	2,5
Eraikuntza	-8,2	-5,0	-12,2	-10,8	4,6	6,5
Zerbitzuak	-0,4	-0,6	-1,1	-0,5	0,7	-0,1
<b>Guztira</b>	<b>-1,7</b>	<b>-1,2</b>	<b>-2,7</b>	<b>-2,1</b>	<b>1,1</b>	<b>0,9</b>

Iturria: Eustat.

Ekonomia jardueraren adarrak aztertuta, sektore guztiek, inolako salbuespenik gabe, ekarpen negatiboa egin zioten EAEko balio erantsi gordinaren hazkunderari 2013. urtean. Nekazaritza eta abeltzaintza biltzen dituen sektorea %6,1 gutxitu zen, 2012an ezohiko bizitasuna erakutsi eta gero. Industria jardueraren adarrak %1,9ko atzerakada ezagutu zuen, kanpo eta barne eskarien geldotasun handiak baldintzatuta. EAEko industriak urteko azken zatian apaldu zuen jaitsiera tasa, kanpo eskaria biziagotu zelako. Aurreko urteetan bezala, eraikuntzak hazkunde

erritmo negatiboa jaso zuen berriro, 2013an %-5,0 izan zena, nahiz eta beherakada aurreko urteetako baino txikiagoa izan zen. Zerbitzuen arloari dagokionez, urteko batez bestekoan %0,6 gutxitu zen balio erantsia 2013an. Agregatu horretan beheranzko bilakaera hauteman zen azpiatal guztietan.

### Lehen arloa

Lehen arloak %6,1 egin zuen atzera 2013an, aurreko urtean balio erantsia %8,7 areagotu zen bitartean. Unean uneko prezioetan, urteko hazkundera %-3,1 izan zen. Nekazaritza eta arrantzako jardueraren bolumena hainbeste murriztu zenez, prezioen igoera txikia ez zen nahiko izan sektorearen balio erantsi nominala handitzeko (%-3,1).

Nekazaritzako atalean, azken ekoizpenak behera egin zuen zerealetan, ortuarietan, Errioxako ardoan eta frutetan. Azpimarratzekoa da ekilorearen gehikuntza, azalera eta errendimendua oso nabarmen handitu zirelako. Prezioei dagokienez, oro har, 2013an gora egin zuten, Errioxako ardoa, ortuariak eta frutak garestitu zirelako. Aitzitik, zerealak eta ekiloreak merkatu ziren.

### LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013
BEG. Indize kateatuak	20,8	7,9	8,7	-6,1
BEG uneko prezioak	15,0	3,0	17,2	-3,1
Deflatoarea	-4,8	-4,6	7,7	3,2
Enplegua	-0,8	-4,9	-0,3	-3,7
Produktibitatea	21,8	13,5	9,1	-2,4

Iturria: Eustat.

Abeltzaintzaren atalean, ekoizpenak beheranzko joera erakutsi zuen 2013. urtean zehar, jarduera horren barruan orokorra izan zena. Izan ere, abeltzaintzaren arlo guztiek animalien kopurua gutxitu zuten. Beraien artean, oilo erruleak nabarmendu behar dira, eta, horren ondorioz, arrautzen ekoizpenaren beherakada. Prezioek gora egin zuten atal guztietan,

## 2013ko urteko txostena

---

salbuespen bakarrak arrautzak, gizentzeko oilaskoak eta esnezko antxumekia izan zirelarik. Salneurrien igoerak ia osorik konpentsatu zuen ekoizpenen jaitsiera.

Basogintzari dagokionez, 2012an mozketak ugartu ondoren, 2013an modu neurritsuan gutxitu ziren. Intsinis pinuak mozteko baimenak, autonomia erkidegoan garrantzi ekonomiko handiena duen zuhaitz mota horixe baita, %4,0 gutxitu ziren. Prezioak berriro jaitsi izanak lagundu zuen mozketen beherakada horretan. Barne eskaria oso ahul zegoenez, sektoreak kanpoko merkatuak bilatzeari ekin zion eta baita barne merkatuko nitxo berriak ezagutzeari ere.

### **Industria**


2013an, EAEko industriak %-1,9 murriztu zuen balio erantsia urteko batez bestekoan. Datu horrek nolabaiteko hobekuntza dakarren aurreko urtekoaren aldean, tasa negatibo horrek agerian uzten du industriak bizi zuen narriadura bizia. Hala eta guztiz ere, jarduera adar horrek urteko lau hiruhilekoetan marraztu zuen ibilbideak beherakada erritmoa leuntzen ari zela erakutsi zuen, eta urte amaieran balio erantsi gordinak hazkunde positibo hutsala lortzera iritsi zen. Sektorea bultzatu zuen faktorea EAEko industriaren esportazioak erosten dituzten ekonomien susperraldia izan zen. Aitzitik, EAEko barne eskaria eta, oso bereziki, espainiar merkatutik etortzen dena gertatu zen narriaduraren erantzuleak izan ziren.

EAEko industriak bizi zuen egoera hori herrialde garatu gehienetan ere hauteman zen, beraien industriren balio erantsiak ere aldakuntza tasa negatiboak izan zituelako, baina aurreko urtekoak baino nabarmen hobeak. Oso bestelakoa da AEBen eta Japoniaren kasuak, beraietan 2013ko industria ekoizpena aurreko urtekoa baino motelagoa izan baitzen.


Industria adarraren adierazleen bilakaerak balio erantsiarena bezalako ibilbidea erakusten du. Izan ere, EAEko industria produkzioaren indizeak 2013an jaso zuen batez besteko datua ez zen aurreko urtekoarena bezain negatiboa eta suspertzeko joera garbia erakutsi zuen urte osoan zehar. Ondasunak ekonomia helburuaren arabera sailkatzeko datuek iradokitzen dutenez, portaera oso ezberdina izan zen batzuetan eta besteetan. Ekipamendurako ondasunek eta bitarteko ondasunek IPI orokorrarena bezalako bilakaera erakutsi zuten 2013an zehar. Gainontzeko taldeek, hots, kontsumorako ondasunek eta energiarenak, narriadura bizia nozitu zuten eta gehikuntza tasak 2012koak baino askoz okerragoak izan ziren.

**Industria ekoizpenaren bilakaera**  
Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna




Alemania




Frantzia



Espainia



EAE



Iturria: Eurostat, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta Eustat.

## 2013ko urteko txostena

### INDUSTRIAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Industriaren balio erantsia						
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EB-27	3,2	-2,3	-11,2	8,3	2,6	-1,1	-0,2
Eurogunea	3,6	-2,4	-12,9	9,5	3,0	-1,1	-0,6
Alemania	5,0	-1,9	-16,6	16,5	5,5	-0,4	0,1
Frantzia	2,0	-4,3	-7,5	3,7	1,3	-1,1	-0,8
Erresuma Batua	0,4	-2,9	-9,5	2,8	-1,2	-2,3	---
Italia	2,8	-3,0	-15,1	6,0	1,5	-3,0	-3,2
Espainia	0,5	-2,1	-11,4	7,1	2,7	-0,5	-1,2
EAE	3,1	-0,7	-12,9	2,0	1,6	-3,7	-1,9
AEB (*)	2,5	-3,4	-11,3	5,7	3,3	3,8	2,9
Japonia (*)	2,9	-3,5	-21,6	15,6	-2,6	0,2	-0,6

(\*)Industriaren ekoizpena.

Iturria: Eurostat, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministeriora eta Eustat.

### EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-AREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak.

	2010	2011	2012	2013
BEG bolumeneko indizea	2,0	1,6	-3,7	-1,9
BEG uneko prezioetan	4,5	1,9	-3,5	-2,5
Deflatorea	2,4	0,3	0,2	-0,7
Enplegua	-3,4	-1,3	-4,6	-4,3
Produktibitatea	5,6	3,0	1,0	2,5
Industria produkzioaren indizea	2,1	3,5	-5,6	-3,3
Industria giroaren indizea	-20,3	-12,3	-23,0	-21,2
Ekoizteko ahalmenaren erabilera	69,8	75,1	74,2	71,7

Iturria: Eustat eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.


Industria adarren IPIa aztertzen denean ere, oso bestelako joerak hautematen dira batzuen eta besteen artean. Izan ere, aurreko urtekoan baino bizitasun handiagoa nabaritu zen farmaziako produktuetan, industria kimikoan, metalurgian, garraio materialean eta makineria eta ekipamenduan. Aitzitik, narriadura areagotu zen 2013an material eta ekipamendu elektrikoan,




eta erauzketako industrietan. Beste aldetik, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak enpresarien iritziez argitaratzen duen inkestak ondorio bera eskaini zuen EAEko industriaren portaera orokorraz. Izan ere, industria giroaren indizeak (IGI) eman zituen datuek erakutsi zuten jaitsiera erritmoa zertxobait leundu zela 2013an.

**EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera**  
Urte arteko aldakuntza tasak


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

## 2013ko urteko txostena

---

2013. urtean zehar, enplegu galera garrantzitsua (%-4,3) gertatu zen industriaren sektorean. Horri eransten bazaio balio erantsi gordinaren jaitsiera (%-1,9), produktibitatearen irabazia %2,5era iristen da. Balio hori aurreko urtekoa baino handiagoa da eta puntu erdi batean gainditzen du 1995etik lortu duen batez besteko emaitza (%2,0).

### Eraikuntza

EAEko eraikuntzak ekarpen negatibo garrantzitsua egin zion berriro balio erantsi gordinaren hazkundeari eta 2013ko beherakada %5,0 ra iritsi zen. Sektore horretako hazkunde tasa negatiboak etengabeak izan dira 2008tik, baina adierazleek seinatzen dute beheranzko joera luze hori amaitzen ari dela. Beste aldetik, egoera negatiboa orokorra da sektorea osatzen duten bi ataletan. Izan ere, hala egoitzen eraikuntzak nola obra zibilak murrizketa garrantzitsua ezagutu zuten 2013an. Hala eta guztiz ere, tasa negatiboak aurreko urtekoak baino txikiagoak izan ziren bi ataletan, batez ere obra zibilari dagokionean.

#### ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013
BEG bolumen indizea	-7,9	-7,9	-8,2	-5,0
BEG uneko prezioak	-6,2	-9,4	-10,7	-6,7
Deflatorea	1,8	-1,6	-2,8	-1,9
Enplegua	-7,0	-9,9	-12,2	-10,8
Produktibitatea	-1,0	2,2	4,6	6,5
Etxebizitzien salerosketak	25,5	-19,6	-20,2	-14,3
Prezioa €/m <sup>2</sup>	-4,4	-2,8	-2,4	-0,7
Hasitako etxebizitzak	4,4	25,1	-43,7	---
Amaitutako etxebizitzak	-15,3	-0,2	-24,5	-32,9
Bisatuak. Etxebizitzien kopurua	-1,4	-8,3	-33,8	-9,4
Zementuaren itxurazko kontsumoa	-23,9	-12,9	-28,0	-22,8

Iturria: Eustat, INE, Oficemen eta Sustapen Ministerioa.

Eraikuntzari buruz eskura dauden adierazleek ere balio erantsi gordinak izan zuen beheranzko bilakaera baina suspertze txiki batekin erakutsi zuten. Alde batetik, EAEn egin diren etxebizitzaren salerosketak portaera hori adierazten du: aldakuntza tasa negatiboa, baina aurreko urteko emaitzaren aldean nolabaiteko hobekuntza izan duena. Etxebizitzaren prezioa jaitsi izanak joera hori areagotu du. Hala eta guztiz ere, etxegintzaren alorrean pisu handiagoa izan zuten familiek bizi zuten ziurgabetasunak, lan merkatuan zegoen seguritatez ezak eta kredituak emateko orduan finantza merkatuek erakutsi zuten zurruntasunak. Obra publikoei dagokienez, administrazio publikoen defizita murriztera bideratu ziren neurriak izan ziren eraikuntza zibileko hainbat egitasmo geroratzeko arrazoi nagusia.

Sektore horren egoera islatu zuten beste aldagai batzuk lan merkatuarenak izan ziren. Izan ere, lan arloko aldagaietan bereziki nabaritu ziren higiezinaren adarrean bideratu ziren doikuntza gogorak. Zehazki adierazita, Gizarte Segurantzako afiliazioetatik eratortzen diren datuek %12,0ko beherakada izan zuten 2013an aurreko urteko mailaren aldean. Hala ere, narriadura hori oso nabarmen leundu zuen iazko azken hilekoetan. Enplegu galera beste informazio iturri batzuetan ere jasota geratu zen. Esate baterako, Eustatek osatzen dituen kontu ekonomikoetan, 2013ko urte arteko aldakuntza tasa %-10,8 izan zen. Horrek esan nahi du 2012an baino 7.000 lanpostu inguru gutxiago zeudela.

### Zerbitzuak

Zerbitzuen urte arteko hazkunde tasa %-0,6 izan zen 2013. urteko batez bestekoan eta, horren ondorioz, okerrera egin zuen aurreko urtean izan zuen balioaren aldean. Izan ere, sektore horrek serie historiko osoan jaso duen emaitzarik txarrena da 2013koa. Narriadura orokor hori, alde batetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioak biltzen dituen adarraren eta, beste aldetik, administrazio publikoak, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barruan hartzen dituen taldeen portaera txarraren ondorioa izan zen. Hurrenez hurren, osagai horiek %-1,4 eta %-0,3 beheratu ziren 2013an. Azkenik, gainontzeko zerbitzuak biltzen dituen atalak %-0,2ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen.

Merkataritzak murgilduta jarraitu zuen urte batzuk lehenago hasi zuen narriaduran. 2013an beste jaitsiera handi bat pairatu zuen. Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak agerian uzten du EAEko merkataritzak bizi duen uzkurdura, eta jaitsiera erritmoa nolabait leuntzeko joera bat dagoen arren, merkataritzaren atal guztiek aldakuntza tasa negatiboak izan zituzten 2013an, salbuespen bakarra motorreko ibilgailuen salmenta eta konponketa izan

## 2013ko urteko txostena

---

zelarik, espainiar gobernuak PIVE egitasmoaren bidez erosketetarako eman zituen diru laguntzei esker. EAEko merkataritzaren atzeraldia agerian uzten duen beste adierazle bat 2013an galdu ziren enpleguak dira, txikizkako merkataritzan are biziagoa izan baitzen.

### ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013
BEG bolumenen indize kateatua	0,7	0,9	-0,4	-0,6
BEG uneko prezioak	1,2	2,5	0,2	1,0
Deflatoarea	0,5	1,6	0,6	1,6
Enplegua	0,2	0,5	-1,1	-0,5
Produktibitatea	0,5	0,4	0,7	-0,1
Bidaiarien gaualdiak	12,6	5,3	1,0	-3,1
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,88	1,89	1,91	1,89
Plazen betetze maila (ehunekoa)	43,97	46,00	46,10	44,30
Zerbitzuen koiuntura indizea	---	-4,1	-6,2	-4,9

Iturria: Eustat.

Analisia turismoan fokatzen bada, Eustatek argitaratzen duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak adierazten du adar horren jarduera gutxitu zela. Bidaiarien batez besteko egonaldia eta EAEko hotelen betetze maila jaitsi ziren 2013an eta, hurrenez hurren, 1,89 egunetan eta %44,3an kokatu ziren. Bereziki azpimarragarria izan zen gaualdien eta bidaiarien sarrera 2013an. Hala ere, jaitsiera hori Estatuko gainontzeko erkidegoetatik etorri ziren turisten artean bakarrik gauzatu zen. Izan ere, Kanarietatik eta Errioxatik bakarrik etorri ziren bisitari gehiago EAERA, gainontzeko autonomia erkidegoetatik iritsi ziren bidaiarien kopurua urte horretan murriztu zen bitartean. Atzerriko turistek dagokienez, nabarmen igo zen EAERA etorri zirenen kopurua, batez ere Txinatik, Japoniatik, Afrikatik, Errusiatik eta Norvegiatik iritsitakoak. Turismoaren arloan bizi zen geldotasunarekin bat eginez, EAEko establezimenduen kopurua zertxobait murriztu zen eta autonomia erkidegoak eskaini zituen hotel plazak leunki jaitsi zen, Barnealdeak eta hiriburuek indarra galdu zuten 2013an eta zertxobait konpentsatuta geratu zen kostaldeko hoteletara joan ziren bidaiarien kopuru handixeago batekin.

**ZERBITZUEN BEG-AREN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013
<b>Zerbitzuak guztira</b>	<b>0,7</b>	<b>0,9</b>	<b>-0,4</b>	<b>-0,6</b>
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,4	-0,6	-1,1	-1,4
AAPP, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbi.	3,8	3,5	0,4	-0,3
Gainontzeko zerbitzuak	-0,8	0,4	-0,3	-0,2

Iturria: Eustat.

Garraioari dagokionez, AENAK argitaratu zituen datuek agerian uzten dute EAEko aireportuetako jarduera murriztu zela. EAERA hegazkinez iritsi ziren bidaiarien kopurua nabarmen gutxitu zen 2013an, neurri batean Ryanair enpresak Bilbon egiten zituen eragiketak bertan behera utzi zituelako. Halaber, hiru aireportuetan eginiko eragiketak gutxitu ziren eta 2012an egin zirenak baino askoz ere gutxiago izan ziren. Aitzitik, jatorria edo helburua EAEko aireportu batean izan zuten garraiatutako salgaien bolumenak oso bilakaera ona izan zuen 2013. urtean zehar. Beste aldetik, zerbitzuen koiuntura indizeak garraioko salmentei eta enpleguari eskaini zituen datuek garbi erakusten dute jarduerak jaitsiera orokorra izan zuela 2013an.

**Eskaria****Sarrera**


2013ko batez bestekoa, EAEko barne eskariak tamaina handiko ekarpen negatiboa egin zion BPGaren hazkunderari, nahiz eta aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen. Hiruhilekoka erakutsi zuen joerak suspertze arina iradokitzen du agregatuarentzat. Izan ere, lehen hiruhilekokoan, ekarpen negatiboa -2,1 puntukoa izan zen, eta azken laurdenean, berriz, -0,5koa. Familien kontsumoak eta, bereziki, administrazio publikoenak behera egin zuen 2013an. Kapital eraketa gordinak ere urte arteko tasa negatiboa aurkeztu zuen, nahiz eta aurreko urteko jaitsiera leundu zuen. Kanpo eskariari dagokionez, kanpo eskariak ekarpen positiboa egin zion

## 2013ko urteko txostena


ekonomiaren hazkunderari, baina ekarpen hori ez zen nahiko izan barne merkatuaren nariadura konpentsatzeko.

### Barne eskariaren osagaien hazkundera

Barneko azken kontsumoa



Kapital eraketa gordina



Iturria: Eustat.

### Gastua azken kontsumoan

Azken kontsumoan eginiko gastua %1,0 murriztu zen 2013an, baina agregatu horrek leuntzeko joera arina erakutsi zuen jaitsieran, ekitaldian zehar. Suspertzeko ibilbide hori oso agerikoa izan zen familiek kontsumoan eginiko gastuan, urte arteko tasa %-1,0 izan baitzen, aurreko urteko emaitza hiru hamarrenetan hobetuz. Oso bestelakoa izan zen administrazio publikoen gastuaren bilakaera, %1,3 murriztu zelako 2013an, aurreko urteko jaitsiera %0,8 bakarrik izan zen bitartean.

Familiek kontsumoan eginiko gastuaz, esan behar da zuhurtzia izan zela nagusia beraien kontsumo erabaketan, ekonomia orokorraren bilakaeraz eta, oso bereziki, lan merkatuaren nondik norakoaz ezkortasuna nagusitu zelako. Hala ere, urteko azken hiruhilekoan igurikimenak hobetu ziren eta horrek erosketak animatu zituen, inflazio kontrolatuko eta interes tasa txikiko testuinguru batean.

**ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013
Soldatapekoen ordainketa	-1,4	1,9	0,1	-0,7	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	2,7	1,9	3,6	2,7	1,3
Enplegua	-4,0	-1,3	-0,9	-2,7	-2,1
Pentsioen kopurua (*)	1,7	1,5	1,4	1,3	1,7
Batez besteko pentsioa (*)	4,5	2,9	3,1	2,9	3,2
PFEZren diru bilketa	-12,1	3,8	6,3	0,2	-1,5
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)(**)	1,6	1,4	2,0	1,1	0,5
KPI	0,3	1,7	3,1	2,3	2,3

(\*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak.

(\*\*) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

**EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013
Kontsumo pribatua (bolumeneko indizea)	-3,6	0,8	-0,7	-1,3	-1,0
Kontsumo publikoa (bolumeneko indizea)	5,0	2,2	0,6	-0,8	-1,3
IPI kontsumo ondasunak. EAE	-14,6	0,9	-0,7	-3,8	-5,0
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	-8,5	0,7	-1,5	-5,0	-2,1
Automobilen matrikulazioa	1,7	-9,6	-26,4	-13,3	7,9
Barne merkataritzaren indizea (prezio finkoak)	---	---	-3,9	-5,1	-4,0
Txikizkako merkataritza (prezio finkoak)	-0,3	-0,5	-5,4	-3,5	-0,9

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Familien kontsumoaz eskuragarri dauden adierazleek narriadura moteltzeko joera erakutsi zuten 2013an. Esate baterako, txikizkako merkataritzaren indizeak eta azalera handietako salmenten indizeak hazkunde tasa negatiboak jaso zituzten, baina aurreko ekitaldikoak baino txikiagoak. Turismoen matrikulazioari dagokionez, 2013ko hazkundera %7,9ra iritsi zen, PIVE egitasmoaren diru laguntzek bultzatuta. Diru laguntza hori gabe eta finantzazioa lortzeko

## 2013ko urteko txostena

---

zeuden zailtasunak ikusita, oso litekeena da adierazle horrek behera egitea berriro 2013an. Halaber, urtean saldutako turismoen kopurua (28.000 inguru) krisiaren aurreko urteetan saltzen zirenen erdia zen, gutxi gorabehera (1998tik 2007ra bitarteko epealdian 57.000 baino gehiago saldu ziren urte guztietan).

Beste aldetik, Espainiako Bankuak banku sistemak arlo pribatuari emandako kredituez argitaratu zituen datuek agerian uzten dute mailegu pribatuen eskaria oso nabarmen murriztu zela aurreko urteko kopuruarekiko.

### Kapital eraketa gordina

Kapital eraketa gordinak %3,2ko beherakada jaso zuen 2013. urtean. Aldakuntza tasa hori aurreko urteetako baino txikiagoa izan zen. Beheranzko portaera hori orokorra izan zen eta berdin nabaritu zen ekipamendurako ondasunetan (%-1,2) nola gainontzeko inbertsioa biltzen duen atalean (%-4,1). Hala eta guztiz ere, ekipamendurako ondasunen osagaiak bizitasun handiagoa erakutsi zuen eta urteko azken hiruhilekoan urte arteko aldakuntza tasa positibo bat jasotzera iritsi zen.

#### KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	-14,3	-4,3	-2,3	-6,3	-3,2
- Ekipamendurako ondasunak	-23,2	-2,6	2,9	-5,5	-1,2
- Gainontzeko inbertsioa	-11,5	-4,9	-4,4	-6,6	-4,1
IPI ekipamendurako ondasunak:	-23,2	-2,6	10,3	-5,9	-3,3
- IPI garraio materiala	-15,0	6,8	12,2	-9,5	-3,4
- IPI makineria	-30,2	-4,9	15,2	-0,9	-0,3
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	-34,8	13,1	1,6	2,3	-7,2
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-39,6	0,1	-19,3	-17,5	-0,2

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.



Eskura dauden adierazleen datuek baieztatzen dute EAEko inbertsioak 2013an izan zuten bilakaera. Izan ere, industria produkzioaren indizeak, ekipamendurako ondasunen atalean, nabarmen moteldu zuten bere narriadura erritmoa urtean zehar, hala garraio materialean nola makinerian. Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak gora egin zuten nabarmen, horiek ere espainiar gobernuaren diru laguntzek bultzatuta. Datu horiek aurreko bi urtekoak baino hobeak dira eta, aldi berean, enpresen inbertsioaren suspertzea iragartzen dute. Hala ere, ekipamendurako ondasunen inportazioak %7,0aren inguruan murriztu ziren, aurreko urteko emaitza baino askoz ere okerragoa delarik.

Enpresarien igurikimenek esportazioetan eta kanpo merkatuen bizitasun handiagoan kokatu zuten konfiantza 2013an. Hala ere, barneko salmentaz eta enpresen lan indarrari eusteko gaitasunaz jaso ziren emaitzak negatiboak izan ziren. Elementu horiek guztiak kontuan izanda, enpresen konfiantza indizea negatiboa izan zen berriro, nahiz eta hobekuntza garrantzitsua erakutsi zuten 2012ko datuaren aldean. Bilakaera hori orokorra izan zen jarduera adar guztietan.


### **Kanpo saldoa eta lehiakortasuna**

Garapen bidean dauden herrialdeen jarduera ekonomikoa moteldu izanak, ekonomia garatuen hazkunde ahulak, eta herrialde aurreratuen ekoizpen hutsalak eta langabezia tasa altuak eragin negatiboa izan zuten munduko hazkundearen norabidean eta, orobat, nazioarteko merkataritzaren bilakaeran, 2013an moteltze arina jaso zuelarik. Hain zuzen ere, Munduko Merkataritzaren Antolakundeak (MMA) hazkunde handiagoa espero zuten 2013ko merkataritzan, baina ekonomia egoeraren ahultasunak inportazioen munduko eskaria aurreikusten zena baino askoz gehiago galgatu zuten. Zehazkiago, salgaien munduko merkataritza %2,1 hazi zen termino errealetan 2013an, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago, eta 2010ean lortu zen %14aren inguruko hazkunde hartatik oso urrun.

Dolarretan neurtuta, esportazioen hazkundea 2013an antzekoa izan zen (%2,0), baina termino errealetan ez bezala, 2012ko emaitza hutsala (%0,1) baino hobeagoa izan zen. Ekonomia jardueraren susperraldiarekin gertatu zen bezala, esportazioen hazkundeak abiadura ezberdinak izan zituen toki batzuetan eta besteetan. Ereku guztiek, Afrikako esportazioek izan ezik, salmentak handitu zituzten arren, ekonomia garatuen esportazioen hazkunde tasa (%1,5) ez zen garatzen ari diren herrialdeek lortu zutena (%3,3) bezain indartsua izan.

## 2013ko urteko txostena

### Ondasunen esportazioak dolarretan Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

Izan ere, 2012an Europako herrialde ia guztiek salmentak nola geratu ziren tasa negatibotan ikusi ondoren, 2013an Europar Batasunak hazkunde tasa positiboak berreskuratu zituen. Hain zuzen ere, kontinente zaharreko esportazioak %4,4 areagotu ziren eta zazpi hamarren berreskuratu zituen nazioarteko merkatu kuotan (%32,7). Hala eta guztiz ere, bi balio horiek oso urrun daude krisi ekonomikoaren aurretik lortzen ziren batez bestekoetatik, garai hartan Europako ekoizkinen salmentak bi zenbakitan hazten zirelako eta merkatuaren %39 baino gehiago bereganatzen zutelako. Esportazioen hobekuntza hori bai europar merkatuetara bai kanpokoetara hedatu zen eta euroaren balioa nabarmen igo zen arren, kanpoan ere salmentak

eta kuota handitu ziren. Europako ekonomia nagusien artean, britainiarren salmentak nabarmendu ziren, %14,4 inguru hazi zirelako. Ondoren, Espainia, Alemania eta Frantzia kokatu ziren, aurreko urteko jaitsiera biziaren ondoren hazkunde positiboak lortu zituztelako.

ELGEkoak diren beste herrialdeetan, bilakaera ez zen horren ona. Txinako barne eskariak indarra galdu izanak Japoniako esportazioak berriro eta are gehiago jaitea ekarri zuen. Orobat, estatubatuar salmentek laugarren urtez jarraian moteldu zituzten emaitzak. Hain zuzen ere, Iparramerikako herrialde horren esportazioak %21 baino gehiago hazi ziren 2010ean, baina %2,2 baino ez 2013an.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Asiako esportazioak gainontzekoak baino bizkorrago hazi ziren, %2,8ko gehikuntza tasa batekin. Izan ere, aipatu den bezala, Japoniako salmentak gutxitu ziren, baina Txinako eta Indiako esportazioak %7,9 eta %5,3 areagotu ziren, hurrenez hurren. Emaitza horiek 2012koak baino hobeak izan ziren, baina oraindik apal samarrak ziren azken urteetako tasekin alderatuta. Datu negatiboa Afrikako kontinentetik iritsi zen, bertako esportazioen guztizkoa jaitsi zelako, petrolio esportatzen duten herrialdeetatik bidalitako kantitateak bat-bateko murrizketa bizia ezagutu zuelako (Nigerian %-12,8 eta Aljerian %-8,3).

EAEko ekonomia ez zen testuinguru ekonomiko horretatik kanpo geratu eta, Eustatek egin duen lehen estimazioaren arabera, kanpoan (Estatuan eta atzerrian) saldutako ondasunen eta zerbitzuen emaitza nominala (%2,2) munduko ekonomiarena (%2,1) bezalakoa izan zen. Termino errealean, gehikuntza tasa %1,1 izan zen, aurreko urtean jasotako %3,3ko jaitsieraren ondoren. Inportazioei dagokienez, hazkundera %1,1 izan zen termino nominaletan eta %0,5, berriz, errealean.

Atzerrira bidalitako esportazioei dagokienez, 2010ean esportazioek gorakada bizia lortu zuten arren, ondorengo urteetan hazkunde tasa horiek ez ziren errepikatu eta urtetik urtera erritmoa galdu ondoren, 2013an salmentak %0,3 jaitsi ziren. Inportazioak, berriz, hazi egin ziren, kontsumo pribatua eta inbertsioa hobetu zirelako, eta 2012ko beherakada biziaren ondoren, %1,8 areagotu ziren. Hala eta guztiz ere, esportazioen balioak 20.200 milioi euroko langa gairitu zuen, inportazioak 16.000 milioi eurora iritsi ez ziren bitartean. Aurreko bi kopuru horien ondorioz, EAEko merkataritza superabita 4.450 milioi eurora iritsi zen. Energiaz bestelako merkataritzaren bilakaera positiboa izan zen, zeren eta esportazioek hazkunde txiki bat lortu baitzuten, inportazioak %0,2 murriztu ziren bitartean. Aurrekoaren ondorioz,

## 2013ko urteko txostena

energia gabeko merkataritza superabitak 8.300 milioi euroko zenbatekoa gainditu zuen, serie historiko osoan aurrekaririk ez duen kopuru bat delarik.

### ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2008	2009	2010	2011	2012	2013 (*)	Milioi € 2013 (*)
<b>Esportazioak</b>							
Guztira	6,3	-26,3	19,6	14,6	2,4	-0,3	20.242,0
Ez-energetikoak	4,9	-25,9	19,3	14,4	0,6	0,6	18.382,0
Energetikoak	22,6	-30,5	22,7	17,3	20,1	-8,8	1.860,0
<b>Inportazioak</b>							
Guztira	6,4	-38,9	25,5	12,2	-8,6	1,8	15.792,1
Ez-energetikoak	-0,8	-38,2	26,0	11,3	-7,4	-0,2	10.068,1
Energetikoak	22,9	-40,1	24,6	13,8	-10,7	5,5	5.723,9
<b>Saldoa</b>							
Guztira (milioi €)	161,4	2.650,9	2.445,0	3.178,5	5.146,6	4.450,0	4.450,0
Ez-energetikoak (milioi €)	5.429,1	5.628,9	6.180,1	7.376,8	8.326,9	8.313,9	8.313,9

(\*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

EAEko produktuek ez zuten jakin Europako ekonomia jardueraren hobekuntza txikia baliatzen. Izan ere, eremu hori oraindik EAEko esportazioen helburu behinena izan zen arren, esportazioen helburua Europako merkatutik AEBetako eta Japoniako merkatuetara zertxobait mugitu zela hauteman zen. Zehazkiago adierazita, EAEko esportazio guztietatik %61,0 Europar Batasunean saldu zen, hots, 2012an saldu zena baino puntu bat eta erdi gutxiago. Halaber, tasa hori oso urrun dago mende honen hasieran jaso ziren %70etik gorako ehunekoetatik. Dena dela, kontinente zaharrera bidalitako esportazioen balioak 12.345 milioi euroko langa gainditu zuen.

## EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Miloi €
	2008	2009	2010	2011	2012	2013(*)	2013 (*)
<b>Esportazioak</b>							
ELGE	4,9	-30,7	21,1	17,6	2,1	1,2	15.691,6
Europako kide berriak	7,5	-30,9	26,4	16,9	1,5	-0,1	992,7
Europar Batasuna 27	4,5	-33,0	22,3	18,2	-0,1	-0,8	12.345,3
Alemania	3,6	-32,4	19,7	23,9	-1,8	1,8	2.936,6
Frantzia	7,3	-29,0	23,5	12,1	8,0	-1,5	3.416,4
Erresuma Batua	1,6	-36,1	22,0	24,9	14,8	-8,7	1.204,4
Italia	-3,2	-37,3	31,1	9,6	-19,7	-2,5	921,2
Errusia	50,3	-47,1	49,2	26,7	-8,8	4,7	200,0
Txina	33,7	-35,0	55,9	16,1	-11,1	17,9	493,6
<b>Inportazioak</b>							
ELGE	-4,3	-33,7	24,7	8,0	3,9	1,0	10.004,7
Europako kide berriak	29,7	-35,9	9,0	15,7	-16,8	3,2	422,3
Europar Batasuna 27	-4,6	-37,0	23,3	7,7	-4,7	-0,8	7.368,6
Alemania	-12,5	-46,6	22,6	19,2	1,9	-2,3	1.863,6
Frantzia	2,9	-36,5	29,4	8,7	-6,1	0,9	1.600,1
Erresuma Batua	-18,7	-41,4	43,5	2,1	-30,6	-2,6	522,8
Italia	-8,4	-28,7	2,1	1,6	4,0	-11,6	782,8
Errusia	19,7	-47,0	36,7	15,6	-24,3	19,1	2.503,1
Txina	-2,0	-36,4	24,0	2,7	-7,6	-3,4	809,7

(\*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Alemaniako merkatua bizkor suspertu zen arren, Frantziako eta Erresuma Batuko merkatuetan salmentak gutxitu zirenez, Europara bidalitako esportazioen jaitsiera areagotu zen 2013. urtean zehar. Hain zuzen ere, Alemaniak eta Frantziak esportazio guztien %51 baino gehiago bereganatu zuten. Bereziki, makinak eta tresna mekanikoak eta, neurri handiagoan, ibilgailuak erosi zituzten. Horren ondorioz, azken atal horrek 5,5 puntu irabazi zituen urtebete bakar batean. Dena dela, eta 2013ko hobekuntza nabarmena izan zen arren, garraio materialak ezin izan zuen hazkunde positiboak berreskuratu eta tasa negatibotan murgilduta jarraitu zuen. Beste aldetik, burdinurto eta altzairu galdaketaren jaitsierak, eta beraien galdaketa


## 2013ko urteko txostena

manufakturenak zein kautxuarenak Italiara eta Erresuma Batura bidalitako esportazioei kalte egin zieten. Erresuma Batuko merkatuari dagokionez, salmentak %8,7 murriztu ziren, ordura arte inoiz gertatu zen beherakadarik handiena, 2009ko datua salbuespentzat jotzen bada, urte horretan nazioarteko merkataritzak hondoa jo zuelako.


EAEko ekonomiaren hobekuntza erlatiboak Europar Batasunetik ekarritako inportazioen beherakada erritmoa leuntzea ahalbidetu zuen, baina oraindik tasa negatibotan jarraitu zuten eta atzeraldiaren aurreko garaian lortu ziren %10aren inguruko hazkundeetatik urrun. Dena dela, Europar Batasuna izan zen EAEko merkatuaren hornitzaile nagusia eta 7.368 milioi euro fakturatu zizkion.

### Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera Ehunekoak

Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat. 2013ko datuak. Behin behinekoak.

Euroak balioa irabazi zuen arren, EAEk AEBetan saldutakoa ez zen kaltetuta atera. Are gehiago, estatubatuar merkatura bideratutako esportazioak 2012ko batez bestekoa baino askoz ere gehiago hazi ziren (%8,7, aurreko urteko %0,9aren aldean). Esportazio horien osareri dagokionez, Europar Batasuneko ez bezala, AEBetako gehikuntzarik handiena produktu mineralena izan zen, salmenta %24,2 areagotu zelako. Hala ere, datu esanguratsuenak inportazioen eskutik iritsi ziren, zeren eta EAEko eragileek %40,6 handitu zituzten herrialde

horretan eginiko erosketak. Salmentekin gertatu zen bezala, erregai mineralak izan ziren erosketen horien bultzatzaile nagusiak, eta inportazioen balioak 794 milioi euroak gainditzea ahalbidetu zuen, ordura arteko daturik onena baita.

Esportazioen moteltzea biziagoa izan zen ELGETik kanpoko herrialdeetan, non salmentak zortzi puntu baino gehiago gutxitu ziren 2012ko hazkunde erritmoaren aldean. Hala eta guztiz ere, EAEko produktuak erosten dituzten herrialde nagusiek ez zuten bat egin joera horrekin. Txinara eta Errusiara bidalitako esportazioak areagotu ziren, makinaren eta tresna mekanikoen, eta automobilen salmentak oso nabarmen areagotu zirelako. Zehazkiago adierazita, Asiako erraldoira bideratutako esportazioak %17,9 areagotu ziren. Datu hori oraindik batez besteko historikoaren (%32,1) azpitik dago, baina emaitza garrantzitsua izan zen, 2011n hasitako beheranzko joera atzean utzi zuelako. Errusiara bidalitakoak, berriz, %4,7 hazi ziren. Inportazioei dagokienez, Errusian erositako energia produktuak azpimarratu behar dira (herrialde horretan erositako guztiaren %88,7 produktu horiek ziren, eta %21,3 hazi ziren) eta baita Brasileko burdinurtua eta altzairu galdaketarena ere, herrialde horretan erositakoa %68,9 gehitzea ahalbidetu baitzuen.

### Lan merkatua

Oraindik enplegua galdu zen arren, EAEko lan merkatua zehazten duten estatistikek erakusten dute 2013an nolabaiteko moteltzea gertatu zela enplegu galeran, bereziki laugarren hiruhilekoan, hobekuntza zantzuak gero eta argiagoak zirelarik. Zantzu horiek datozen urteetan ere jarraituko dutela espero da, EAEko ekonomiaren susperraldiak bidea egingo duen heinean.


EAEko lan merkatua aztertzen duten estatistika iturriek baieztatu zuten, neurri batean, lehenago aipatu dena, hots, enpleguaren alorrean zailtasun handiak daudela, baina hobekuntza seinaleak daudela. Hain zuzen ere, merkatu hori ikertzen duten inkestek bilakaera onena erakutsi zuten, batez ere BJA inkestak, azken urtebetean enpleguak zertxobait gora egin zuela adierazi zuelako. BAI inkestak, berriz, beherakada biziak erakutsi zituen, baina 2012koak baino askoz txikiagoak (%-3,2, aurreko urteko %-5,6aren aldean). Beste aldetik, bai Eustatek kalkulatu dituen kontu ekonomikoek bai Gizarte Segurantzako afiliazioaren erregistroak antzeko landunen kopurua aurkeztu zuten, nahiz eta aldakuntza tasak oso bestelakoak izan ziren, hala tamainan nola joeran. Izan ere, kontu ekonomikoetan lanpostuen kopurua 2012ko

## 2013ko urteko txostena


%-2,7tik 2013ko %-2,1era moteldu zen, baina afiliatuen erregistroan %-2,4 eta %-3,3 izan ziren bi urte horietako tasak.

### Enpleguaren bilakaera EAEn Pertsonak


Kontu ekonomikoak




Gizarte Segurantzako afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen arren, urteko azken hilekoetan, eta batez ere 2014ko lehen hilabeteetan, kopuru horrek egonkortzera



egin zuen. Proporzioaz, jaitsiera horrek gehiago kaltetu zituen afiliatu atzerritarrak, beraien kopurua 2012koa baino %6tik gora murriztu zelako, batez besteko jaitsiera %2,4 bakarrik izan zen bitartean. Beraz, atzerriko afiliatuen pisua afiliazio osoan berriro gutxitu zen, ordukoan jaitsiera oso txikia izan zen arren.

Enpleguaren bilakaera sektoreka aztertzen bada, agerian gelditzen da suspertzeko zantzu garrantzitsuak erakutsi zuela, nahiz eta egia den 2008tik aurrera, urte guztietan, enplegua galdu den etengabe. Zehatz-mehatz, jarduera adar nagusi guztiek leundu zuten jaitsiera erritmoa, neurri handiagoan edo txikiagoan. Emaidza txarrena berriro egokitu zitzaion eraikuntzari, urte osoko jaitsiera %10,8ra iritsi baitzen. Hala ere, tasa hori 2012an jasotako %-12,2 baino zertxobait txikiagoa izan zen. Zalantzarik gabe, beherakadak oso garrantzitsuak dira oraindik, etxebizitzaren eraikuntza eta lizitazio ofiziala ez direlako suspertu. Industriak hamarren gutxi batzuk bakarrik hobetu zuen jaitsiera erritmoa, 2012ko %-4,6tik 2013ko %-4,3ra. Azkenik, zerbitzuek enplegua galtzen jarraitu zuten, baina neurri txikiagoan. Sektore horrek 2009an, 2012an eta 2013an bakarrik galdu ditu lanpostuak.

BPGaren eta enpleguaren konbinaketak saldo positiboa ematen du produktibitatearen alorrean, 2013an %1,0 hazi baitzen, beraren ohiko balioetatik desbideratu gabe. Beste urtebete batez, produktibitatearen irabaziaz oso bestelakoak izan ziren sektore bakoitzean. Bigarren urtez jarraian, eraikuntzak lortu zuen gehikuntza biziak ezustea eman zuen, galdutako lanpostu kopuru handiaren ondorioz. Halaber, zerbitzuen galera txikia azpimarratu behar da. Beste aldetik, industriak %2,5 areagotu zuen bere eraginkortasuna, 1995etik lortu duen batez besteko irabazia puntu erdi batean gaindituz.

Landunen kopuruari dagokionez, Eustatek egiten duen BJA inkestaren datuen arabera, lau urtez etengabe jaitsi eta gero, lana zuen biztanleria egonkortu zen 2013an, aurreko urtearen aldean 400 pertsonatan igo zelako. Hori horrela, 2013an gelditu zen 2009an hasi zen enplegu galera. Esanguratsua da sektoreen espezializazioak sexu bakoitzaren enpleguan duen eragina. Izan ere, lau urteko epealdi horretan, lana zuten emakumeen kopurua ia ez da ezer aldatu, batez ere zerbitzuetan lan egiten dutelako eta sektore horrek hobeto egin dio aurre krisiari. Aitzitik, landunen jaitsiera ia guztia gizonen artean gauzatu da eta hauek pisu handia dute industrian eta eraikuntza alorrean.

## 2013ko urteko txostena

### ENPLEGUA ETA PRODUKTIBITATE IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Enplegua guztira:	0,2	-4,0	-1,3	-0,9	-2,7	-2,1
Produktibitatea guztira:	1,1	0,1	1,8	1,2	1,1	1,0
- Enplegua lehen arloan	-0,1	-3,4	-0,8	-4,9	-0,3	-3,7
- Produktibitatea lehen arloan	-6,1	-1,4	21,8	13,5	9,1	-2,4
- Enplegua industrian	-2,0	-10,4	-3,4	-1,3	-4,6	-4,3
- Produktibitatea industrian	1,4	-2,9	5,6	3,0	1,0	2,5
- Enplegua eraikuntzan	-4,8	-7,9	-7,0	-9,9	-12,2	-10,8
- Produktibitatea eraikuntzan	-1,1	0,5	-1,0	2,2	4,6	6,5
- Enplegua zerbitzuetan	2,0	-1,0	0,2	0,5	-1,1	-0,5
- Produktibitatea zerbitzuetan	1,4	1,0	0,5	0,4	0,7	-0,1


Turria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Adinaren arabera, oraindik ikusten da gazteak lan merkatutik irten zirela, ikasten jarraitzea nahiago dutelako, lan munduan arrakastaz sartzeko beharko dituzten ezagutzak lortze aldera. Hori horrela, 25 urtetik beherakoen enplegu tasa %16,6 izan zen, lau urte lehenago tasa hori %24,7an zegoen bitartean. Erdiko adin taldeak (25 urtetik 44ra bitartekoa) jaitziera bizia nozitu zuen krisiaren lehen urteetan, baina 2013an bere tasari eutsi zion, biztanleriaren %74,6ri. Azkenik, 45 urtetik gorakoen taldeak hamarren batzuk handitu zuen bere enplegu tasa, %37,3 arte. Oro har, 20 urtetik 64 urtera bitarteko enplegu tasa %66,2an kokatu zen 2013an, hots, 2020rako Europan ezarri den helburutik ia bederatzi puntu beherago. Helburu hori %70,4 da gizonentzat eta %61,9, berriz, emakumeentzat.


Enpleguaren bilakaera egonkortu den arren, soldatapekoen kopurua %2,8 murriztu zen azken urtean. Zenbaki absolutuetan, 20.500 soldatapeko gutxiago zeuden 2013an, haietatik 17.400 landunek kontratu mugagabea zeukaten. Horrek eragin negatiboa izan zuen aldibaterakotasun tasan, berriro hainbat hamarren gora egin zuelako, 2012ko %21,4tik 2013ko %21,7ra. Aldi baterako kontratua zutenen ehuneko murriztea zen azken lan erreformaren helburuetako bat eta, oraingoz, ez ditu eman espero ziren fruituak.

**Aldibaterakotasun tasa soldatapekoen artean**  
%

EAE



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Biztanleria aktiboak, BJA inkestak eman duen informazioaren arabera, aurreko urteko jaitziera irauli zuen eta 30.000 lagun baino gehiago irabazi zituen 2013an, aurreko urteko %-2,1etik orduko %3,0ra igaroz. Bilakaera horren atzean, agian, lan merkatutik kanpo dagoen biztanlerian lan egiteko interesa piztu izana egon daiteke, famili askok bizi duten larritasunaren ondorioz. Gehikuntza horri esker, partaidetza tasak serie historiko osoaren baliorik gorena (%56,6) markatu zuen. Bilakaera positiboa jaso zuen bai gizonen partaidetza tasak bai emakumeenak, bereziki azken horienak, lehenengo aldiz %50eko langa gainditu zuelako. Bi sexuen arteko diferentziala, urratsez urrats, ixten ari den arren, oraindik badago 13 puntuko aldea gizonen partaidetza tasaren (%63,1) eta emakumeenaren (%50,5) artean. Adin altueneko taldeak erakutsi zuen interes handiena lan merkatuan parte hartzeko, beraien partaidetza tasa goaraziz. Aitzitik, gazteenen artean, hazkundera apalagoa izan zen.


Landunen kopurua, poliki-poliki, egonkortu zen arren, langabeenak nabarmen egin zuen gora 2013an (%24,1), aurreko urteetan baino are gehiago, lehenago aipatu den biztanleria aktiboaren igoeraren ondorioz. Langabeziaren igoerak adin talde guztietan eta bi sexuetan izan zuen eragina, salbuespenik gabe. Horren ondorioz, langabezia tasa seigarren urtez jarraian igo zen, krisiaren aurretik jaso ziren zenbakietatik oso urrun dagoelarik orain (2008ko langabezia tasa %3,8 izan zen eta 2013koa, berriz, %14,6). Ez zen alde handirik hauteman sexu baten eta

## 2013ko urteko txostena

---

bestearen langabezia tasetan eta puntu bakar bat dago gizonen langabezia tasaren (%15,0) eta emakumeen tasaren (%14,0) artean.

### Langabezia tasaren bilakaera EAEn



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneousak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.

Iturria: Eustat eta INE.

Eusko Jaurlaritzako Enplegua eta Gizarte Politikak Sailak enplegua erregulatzeko dossierrei buruz argitaratzen dituen estatistiken arabera, 2013an %8,0 murriztu ziren guztira, aurreko urtean gehitu ziren bitartean. Horrek iradokitzen du lehenago aipatu den enpleguaren hobekuntza. Aurreko urtean baino dossier gutxiago izateaz gain, azpimarratu behar da, datu positibo gisa, gehien gutxitu ziren dossier mota, eta alde handiz gainera, kontratua eteteak izan zirela, 3.336 dossierretik 1.872ra igaro baitzen mota horren kopurua, hots, %43,9 gutxitu zen urte arteko tasan.

**ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK**

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Dosierren kopurua	496	2.565	1.993	1.560	2.636	2.426
Eragindako langileak	12.794	68.722	35.426	22.072	37.429	31.790
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	108	1.170	1.051	2.203	5.466	5.814
- Behin-behineko etetea	11.216	65.574	32.349	17.991	28.627	24.104
- Kontratua amaitzekoa	1.470	1.978	2.026	1.878	3.336	1.872

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikak Saila.

Azkenik, 2013an sinatu ziren kontratuen kopurua 2012koa baino zertxobait altuagoa izan zen (%1,1), urteko bigarren erdian kontratazioak erakutsi zuen portaera onari esker. Kontratu guztietatik, mugagabeak izan ziren bilakaera onena izan zutenak, %11,1 gehitu zirelako. Aldi baterako kontratuen kopurua, berriz, %0,7 baino ez zen areagotu urte horretan. Beraz, kontratu mugagabeen pisua kontratazio osoan berriro handitu zen apur bat eta dagoeneko %4,5era iritsi zen.

**ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA**

	Kontratuak	Urte arteko aldakuntza (%)					
	2013	2008	2009	2010	2011	2012	2013
<b>Guztira</b>	<b>664.523</b>	<b>-5,2</b>	<b>-17,8</b>	<b>5,6</b>	<b>2,2</b>	<b>-6,6</b>	<b>1,1</b>
Lanaldi osoko mugagabeak	16.483	-8,7	-32,0	-7,3	-13,4	5,4	5,4
Obra edo zerbitzukoak	130.473	-11,4	-21,1	8,1	4,0	-11,8	-3,1
Abagunekoak	152.047	-9,4	-28,0	11,1	-2,9	-12,5	2,1
Lanaldi laburrekoak	264.175	-1,3	-9,7	5,0	5,0	1,1	6,0
Prestakuntzakoak (*)	5.296	-13,0	-37,7	8,1	2,7	-13,7	14,3
Gainontzekoak	96.049	7,9	-6,6	-1,9	4,8	-8,9	-7,9

(\*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren(SEPE) datuak erabiliz.

### Prezioak, kostuak eta soldatak

Inflazioaren gaineko presioak berriro gutxitu ziren 2013an zehar, eskari eta ekonomia jarduera ahuleko testuinguru orokor batean. Bereziki azpimarragarria izan zen energiaren eta elikagaien salneurrien aldakuntza tasaren beherakada bizia. Hala eta guztiz ere, barne produktu gordinaren deflatoreak oso bestelako portaera erakutsi zuen prezioen gainontzeko adierazleekin alderatuta.

Hain zuzen ere, deflatore hori, bi urtez jarraian jaitsierak izan ondoren, puntu bat igo zen aurreko urteko datuaren aldean (%0,2tik %1,2ra igo zen), bereziki barne merkatuan ekoizitako ondasunen eta zerbitzuen gehikuntzari esker, %0,1etik %0,9ra igaro baitziren. Talde horren barruan, kontsumo publikoaren deflatoreak izan zuen igoera nabarmendu behar da, 2013an funtzionarioek aparteko ordainketa jaso zutelako, 2012an ez bezala. Beste aldetik, inportazioekin eta esportazioekin lotura duten produktuek ia ez zuten inolako aldaketarik izan, aurreko urteko doikuntza biziaren ondoren. Hala ere, inportazioen deflatorea apur bat gehiago moteldu zen (%0,6 hazi zen 2013an eta %0,8, berriz, 2012an), petrolioaren salneurri apalak lagunduta.

#### DEFLATOREEN BILAKAERA

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
<b>BPGaren deflatorea</b>	<b>1,0</b>	<b>-1,3</b>	<b>1,3</b>	<b>0,6</b>	<b>0,2</b>	<b>1,2</b>
Barne eskariaren deflatorea	2,2	-0,2	0,8	1,1	0,1	0,9
Esportazioen deflatorea	4,6	-7,9	3,9	7,5	0,9	1,1
Inportazioen deflatorea	6,0	-5,8	2,8	8,0	0,8	0,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

Beste aldetik, KPI indizeak, 2012ko azken hilekoetan ezagutu zituen igoeren ondoren, abenduan %2,7ra eramán baitzuten, 2013an balio txikiak jaso zituen. Bi arrazoi nabarmendu behar dira: energiako prezioen moteltzea eta BEZaren igoeraren eragina desagertu izana. Jaitsiera garrantzitsu horrek %1,6an kokatu zuen urte osoko batez bestekoa, hau da, 2012ko datua baino zazpi hamarren beherago. Halaber, abenduko inflazioa %0,6 apaldu zen, serie historiko osoan jaso den txikiena baita.

Lehenago ere aipatu denez, lehengaien bizitasun ezak prezioen bilakaera baldintzatu zuen, batez ere energiako salneurrien igoera apalak, aurreko urteko gehikuntza garrantzitsuen ondoren, zeinean petrolio upelaren salneurri une jakin batzuetan 125 dolarretatik gora saltzen baitzen, 2013ko azken hilabeteetan 110 dolarren inguruan modu egonkor batean mantendu zen bitartean. Energiako prezioen moteltze hori bi arrazoitan oinarritu zen. Alde batetik, euroaren balio irabazian eta, beste aldetik, fintzeko enpresek lortu zituzten margenen jaitsieran. Hain zuzen ere, euroaren truke tasa 1,29 dolarrekoa izan zen 2012ko batez bestekoan eta 1,33 dolarrekoa, berriz, 2013an.

Energiako lehengaien merkatzeaz gain, inflazioaren moteltzea azaltzen duen beste arrazoia aurreko urtean indarrean sartu zen BEZ zergaren igoeraren eragina 2013an desagertu izan da. Bi zio horien ondorioz, kontsumoko prezioen igoera bereziki txikia izan zen urte amaieran. Zehatz-mehatz, 2013ko irailetik aurrera, KPI indizearen urte arteko aldakuntza tasa %0,6aren inguruan egonkortu da.

### KONSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2009	2010	2011	2012	2013	Ekarpena
<b>Inflazioa guztira (%100)</b>	<b>0,3</b>	<b>1,7</b>	<b>3,1</b>	<b>2,3</b>	<b>1,6</b>	<b>1,6</b>
<b>Azpiko inflazioa (%82,0)</b>	<b>1,1</b>	<b>0,7</b>	<b>1,8</b>	<b>1,5</b>	<b>1,6</b>	<b>1,3</b>
KPI Landutako elikagaiak (%13,7)	1,2	0,7	3,8	3,3	3,1	0,4
KPI Industriako ondasunak (%26,9)	-0,9	-0,2	0,7	0,3	0,5	0,1
KPI Zerbitzuak (%41,4)	2,5	1,4	2,0	1,7	1,8	0,8
<b>Hondarreko inflazioa (%18,0)</b>	<b>-3,6</b>	<b>6,6</b>	<b>9,5</b>	<b>6,1</b>	<b>1,4</b>	<b>0,3</b>
KPI Landugabeko elikagaiak (%6,8)	0,2	0,2	1,5	2,7	3,7	0,3
KPI Energia (%11,2)	-7,3	11,5	15,3	8,3	0,0	0,0

Iturria: INE.

Azpiko inflazioak ere ekonomia jardueraren ahultasuneko testuingurua nabaritu zuen eta oso egonkor mantendu zen. Hala eta guztiz ere, inflazio orokorra bezala, motelduz joan zen eta jaitsiera batez ere urteko bigarren seihilekoan gauzatu zen. Dena dela, moteltzeko joera hori ez zen inflazio orokorrarena bezain bizia izan eta ez zen nahiko izan 2013ko batez besteko tasa

## 2013ko urteko txostena

aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zedin, urte arteko tasan (%1,6 hazi zen 2013an eta %1,5, berriz, 2012an).

KPIa osatzen duten talde berezi guztiek joera egonkorra edo beheranzkoa erakutsi zuten, salbuespen bakarra landu gabeko elikagaien taldea delarik, baina talde horren goranzko eragina zuzenduta geratu zen gehikuntza hori eragin zuten baldintza meteorologiko txarrak desagertu zirenean. Jaitsiera handiena, espero zitekeen bezala, energiak aurkeztu zuen, bere tasa %8,3tik %0,0ra moteldu zelako. Halaber, eskariaren ahultasun orokorrak bai energiakoak ez diren industria ondasunek (bereziki kontsumo iraunkorreko ondasunek, hala nola automobilek) bai zerbitzuek, pisu handiena duen osagaia baita, aurreko urteetan jasotakoen antzeko balioak eskuratzeko ahalbidetu zuen.

### EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
<b>Indize orokorra</b>	<b>4,1</b>	<b>0,3</b>	<b>1,7</b>	<b>3,1</b>	<b>2,3</b>	<b>1,6</b>
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	6,3	-0,1	-0,7	2,2	2,7	2,9
- Edari alkoholik eta tabakoa	4,0	8,4	10,7	9,8	5,8	6,0
- Jantziak eta oinetakoak	0,7	-1,4	-0,2	0,3	0,2	0,1
- Etxebizitza	6,4	1,9	3,1	7,8	5,7	1,1
- Etxeko hornidura	3,0	1,8	0,9	1,5	1,1	2,0
- Medikuntza	-0,1	-0,2	-0,1	-0,6	-0,7	7,5
- Garraioa	5,7	-5,3	6,5	7,7	4,3	0,3
- Komunikazioak	0,0	-0,6	-0,7	-0,8	-3,4	-4,3
- Aisia eta kultura	0,3	0,3	-0,9	0,3	1,0	1,6
- Irakaskuntza	4,7	4,2	2,2	1,3	2,8	3,0
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	2,4	1,7	1,7	1,0	1,1
- Besteak	3,4	2,5	2,1	2,7	2,4	2,1

Iturria: INE.


Taldeak zehazkiago aztertuta, azpimarratu behar da haietatik erdiak ez zuela Europako Banku Zentralak inflaziorako ezarri zuen %2ko helburua gainditu. Hala ere, oraindik bazeuden balio oso altuak jaso zituzten taldeak, hala nola medikuntza (%7,5), edari alkoholik eta tabakoa




(%6,0) eta hezkuntza (%3,0). Horiek horrela izanda, kontuan hartu behar da igoera horien guztien oinarrian erabaki politikoak (botiken koordainketa abian jarri izana) edo zerga igoerak zeudela, esate baterako tabakoaren gaineko zergen igoera eta unibertsitateetako tasen gehikuntza.

### KPIren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Indize orokorra: EAE




Indize orokorra: Europar Batasuna



Azpiko inflazioa: EAE



Azpiko inflazioa: Europar Batasuna



Iturria: INE eta Eurostat.


## 2013ko urteko txostena

---

Aitzitik, talde askok oso hazkunde txikiak izan zituzten urte horretan. Aipamen berezia merezi dute garraioaren taldeak eta komunikazioenak. Lehenengoak beheranzko bilakaera biziena aurkeztu zuen, beraren aldakuntza tasa lau puntuz gutxituz (%4,3tik %0,3ra igaro zen talde horren tasa). Beste aldetik, komunikazioek bakarrik merkatu zituzten salneurriak (%-4,3) 2013an, sektore horretan dagoen lehia estuak eta lortzen diren aurrerapen teknologikoek lagunduta.

Hala ere, EAEen kontsumoko prezioek moteltze garrantzitsua izan zuten arren, inflazio tartea Eurogunearen tasaren aldean positiboa (0,2 puntu) izan zen, aurreko urtean eremu horretako prezioen bilakaera bi hamarren biziagoa izan zen bitartean. Diferentziala are handiagoa izan zitekeen, energiako ekoizkinen prezioak jaitsi izan ez balira, beraien aldakuntzak eragin handiagoa izaten duelako euskal autonomia erkidegoan.

### EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2013ko batez besteko balioak



Iturria: INE eta Eurostat.

EAEko inflazioaren bilakaera okerragoa talde askoren portaeraren ondorioa izan zen, baina guztien artean medikuntza, eta edari alkoholduak eta tabakoa nabarmendu ziren. Biek datozen hilabeteetan desagertuko diren koiunturako arrazoiengatik igo zituzten prezioak. Gainontzeko taldeetan, aldeak txikiagoak edo zertxobait handiagoak izan ziren. Horiek horrela, bost taldek emaitza txikiagoa jaso zuten. Beraien artean, etxebizitzaren, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeen diferentzial negatiboak nabarmendu ziren, bietan %-1,1ekoa.

Industriako prezioei dagokienez, adierazi behar da inflazioaren presioak ekoizteko katean gero eta txikiagoak izan zirela 2013an zehar. Zehatz-mehatz, IPRIaren hazkunde tasa balio positibotan zegoen urte hasieran, baina tasa negatiboetan amaitu zuen urtea. Hori horrela izanda, urte osoko batez bestekoa %-0,7an kokatu zen, 2012an %2,4 izan zen bitartean. Talde guztiek parte hartu zuten bilakaera horretan, baina, KPIarekin gertatu zen bezala, energiaren osagaia izan zen beheranzko joera horren erantzule nagusia, petrolioaren salneurriak izan zuen merkatzeak baldintzatuta.

### EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
<b>Indize orokorra</b>	<b>5,5</b>	<b>-6,0</b>	<b>3,3</b>	<b>8,1</b>	<b>2,4</b>	<b>-0,7</b>
- Kontsumoko ondasunak	4,2	0,5	0,2	3,1	1,8	0,1
- Kontsumo iraunkorrak	3,0	0,1	-0,4	0,6	0,5	0,2
- Kontsumo iragankorrak	4,7	0,6	0,5	4,0	2,3	0,0
- Ekipamendu ondasunak	2,6	1,4	0,1	1,5	1,2	1,3
- Bitarteko ondasunak	3,8	-7,9	3,1	6,5	0,2	-1,4
- Energia	15,7	-14,6	11,7	21,7	7,8	-1,8


Iturria: Eustat.

Lan merkatuak ahultasun handia erakutsi zuen arren, lan kostuek barneko kostuetan egin zuten presioa zertxobait areagotu zen. Izan ere, 2012an kostuen igoera apala (%0,7) izan ondoren, azken urteko aldakuntza tasa puntu oso bat igo zen (%1,7). Estatuan, berriz, oso bestelako bilakaera hauteman zen eta kostuak oso nabarmen moteldu ziren 2012an, balio negatiboak markatzera ere iritsita (%-0,6), baina 2013an %0,2ra igo ziren. Iazko azken

## 2013ko urteko txostena

hiruhilekoan kostuek ezagutu zuten bizkortzea arlo publikoaren langileen Gabonetako aparteko ordainketa berreskuratu izanaren ondorioa da. Soldaten kostua %1,4 hazi zen 2013an eta gainontzeko kostuak %2,5 gehitu ziren. Azken talde horretan sartzen dira langileei ordaintzen zaizkien irazte sariak. Datuen analisisa langile bakoitzeko egin beharrean lan egindako ordu bakoitzeko egiten bada, lortzen diren emaitzak oso antzekoak dira. Hain zuzen ere, lan egindako ordu bakoitzeko kostu guztiaren gehikuntza %1,8 izan zen, soldaten gehikuntza %1,6 eta gainontzeko osagaiena %2,5.

### Lan kostuen bilakaera langile bakoitzeko Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE.

Azkenik, lan hitzarmenek nolabaiteko moteltzea erakutsi zuten, zeren eta indarrean zeuden hitzarmenetan adostu ziren soldaten gehikuntza erdira baino gehiago murriztu baitziren. Hain zuzen ere, 2012ko %2,7tik 2013ko %1,3ra igaro zen soldaten batez besteko igoera. Urtean zehar sinatu ziren hitzarmenek ere nabarmen apaldu zuten batez besteko gehikuntza, 2012ko %2,0tik 2013ko %1,1era. Beste urtebete batez, ia ez dago inolako alderik sektore mailan sinatutako eta enpresetan adostutako igoeren artean. Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da aurreko zenbaki guztiak zuhurtziaz hartu behar direla, zeren eta oraindik lan hitzarmen baten babesean lan egiten ez duten langileen kopurua oso altua baita.

**HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK**

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
<b>Indarrean dauden hitzarmenak</b>	<b>5,0</b>	<b>2,7</b>	<b>1,9</b>	<b>3,6</b>	<b>2,7</b>	<b>1,3</b>
- Urtean zehar sinatutakoak	4,8	2,8	1,7	3,4	2,0	1,1
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	5,2	2,8	1,7	3,8	2,7	1,3
- Enpresako hitzarmenak	4,1	2,6	2,4	3,1	2,6	1,2

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

## Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien aurrekontuetako eragiketa bateratuei dagokienez, azpimarratu behar da, aurreko urtekoetan bezala, finantzaz bestelako aurrekontu saldoak hobera egin zuela, baina finantzazioko beharra oraindik garrantzitsua zela. Finantzazioko behar hori diru sarrera arrunten bilakaeraren ondorioa izan zen, %2,3 murriztu baitziren. Horrek dagoeneko aurreko urtean ere erakutsi zuen bilakaera negatiboa (%-1,2) baieztatzen du.

Gastuaren aldetik, doikuntza bereziki kapitaleko gastuen atalean mamitu zen, %32,3 murriztu zirelako. Gastu arruntak, ordea, zertxobait areagotu ziren (%1,1). Lehenengoan artean, nabariak ziren inbertsio maila txikiak (%-9,6) eta kapitaleko transferentzien beherakada bizia (%-46,4), azken urteetako tasa baxuenak jaso zituztelako. Gastu arruntei dagokienez, gehikuntzaren bi erantzule nagusiak langileen gastuak eta finantza gastuak izan ziren, lehenengoak aparteko ordainketa berreskuratu zelako eta bigarrenak zorraren ordainketak baldintzatuta.

Diru sarrerei dagokienez, hala sarrera arruntek nola kapitalekoek behera egin zuten 2012ko mailaren aldean. Izan ere, lehenengoak ez dira oraindik suspertu eta bigarrenak (%-6,5) aurreko ekitaldietako gehikuntza tasa apartak atzean utzi zituzten. Hala eta guztiz ere, azken horien diru kopurua oso urrun dago diru sarrera arruntei dagozkien kantitateetatik.

## 2013ko urteko txostena

### EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK

Mila euro

	2013	Urte arteko aldakuntza (%)					
		2008	2009	2010	2011	2012	2013
1. SARRERA ARRUNTAK	12.852.763	-5,2	-9,9	2,5	3,9	-1,2	-2,3
2. GASTU ARRUNTAK	12.243.539	8,1	3,2	-2,8	1,8	-4,6	1,1
Langileen gastuak	2.204.434	7,7	6,3	-0,6	-0,5	-6,4	4,3
Funtzionamenduko gastuak	3.700.403	11,6	10,4	-0,3	0,1	-2,2	-1,6
Finantza gastuak	294.341	-5,3	1,3	79,5	70,9	22,3	9,4
Transferentzia arruntak	6.044.361	6,6	-1,5	-6,0	2,3	-6,5	1,3
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	609.225	-54,1	-123,7	199,8	81,4	70,9	-41,9
4. KAPITALEKO SARRERAK	431.516	54,4	16,0	84,8	54,9	35,6	-6,5
5. KAPITALEKO GASTUAK	1.341.657	15,0	14,0	-1,1	-22,8	11,3	-32,3
Inbertsio errealak	683.342	6,5	4,7	-1,0	-13,2	-12,1	-9,6
Kapitaleko transferentziak	658.315	23,7	22,2	-1,1	-30,0	33,0	-46,4
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-300.916	-137,1	-392,7	31,5	52,7	42,8	36,4

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Zergen bidezko diru bilketari dagokionez, aurreko bi urteetan diru sarrera publikoetan gertatu zen jaitsieraren ondoren, 2013an diru bilketa %3,0 areagotu zen, bereziki zeharkako zergen bilakaerak lagunduta, balio negatiboak atzean utzi zituztelako eta tasa positiboak (%5,9) lortu zituztelako. Neurri txikiagoan, zuzeneko zergek ere gehikuntza positiboa (%1,7) eskuratu zuten 2013an.

Atalen analisisian sartuta eta zuzeneko zergekin hasita, azpimarratu behar da PFEZak, talde horretako beste osagai nagusiak, hots, sozietateen gaineko zergak, ez bezala, beheranzko joerari jarraipena eman zion eta balio negatiboak (%-1,5) markatzera ere iritsi zen. Horrelakorik ez zen 2009tik (%-12,1) gertatu. Zerga horren diru bilketak ezagutu zuen beherakadaren oinarrian lan merkatuaren narriadura zetzan, bai enpleguaren etengabeko galerak bai soldaten igoera txikiak kaltetu zutelako. Horiek horrela, lanaren etekinen atxikipenak %1,8 gutxitu ziren.

**ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA**

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2013	2008	2009	2010	2011	2012	2013
PFEZ	4.264.991	4,5	-12,1	3,8	6,3	0,2	-1,5
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.325.492	7,0	-3,6	3,4	3,2	-1,0	-1,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	215.028	31,6	-14,7	-15,6	-3,0	11,0	-11,1
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	86.181	70,6	13,4	2,7	3,1	3,0	-1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	29.674	-1,0	-56,3	4,8	-19,0	36,1	47,6
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa	143.862	-4,4	-6,4	-1,5	-3,6	-1,9	-5,1
- Kuota diferentzial garbia	-535.246	-67,4	-68,5	6,1	17,7	3,8	7,2
Sozietateen gaineko zerga	1.216.937	-16,8	-27,2	-19,9	17,5	-2,5	7,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	215.028	31,6	-14,7	-15,6	-3,0	11,0	-11,1
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	86.181	70,6	13,4	2,7	3,1	3,0	-1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	29.674	-1,0	-56,3	4,8	-19,0	36,1	47,6
- Kuota diferentzial garbia	886.053	-26,0	-31,6	-23,7	27,3	-7,2	13,3
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	43.135	6,7	-39,4	15,6	-37,5	-60,1	31,6
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	105.417	7,4	-2,1	-11,9	9,4	16,1	17,7
Ondarearen gaineko zerga	138.076	17,5	-72,6	-92,7	-5,8	---	19,6
<b>ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>5.793.064</b>	<b>-1,6</b>	<b>-18,3</b>	<b>-2,5</b>	<b>7,3</b>	<b>1,0</b>	<b>1,7</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	3.139.434	-13,3	-13,0	26,1	-10,9	-4,4	6,0
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	71.889	-50,3	-17,7	28,0	-49,4	-18,9	-10,0
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	38.466	-14,3	-17,6	-15,0	-27,8	-29,4	-6,9
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	13.645	-36,1	-24,5	-7,6	-27,9	-29,9	-21,4
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.542.525	-0,3	-1,4	2,1	-8,3	0,9	10,7
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salment. zerga	12.268	2,1	-3,1	-4,2	-1,9	0,4	-74,7
Aseguru sarien gaineko zerga	71.019	-1,3	-5,5	4,3	1,8	-4,6	-3,8
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>4.889.246</b>	<b>-12,4</b>	<b>-9,8</b>	<b>16,7</b>	<b>-11,7</b>	<b>-3,6</b>	<b>5,9</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARRERAKG UZTIRA</b>	<b>113.602</b>	<b>-4,0</b>	<b>-11,2</b>	<b>9,1</b>	<b>0,1</b>	<b>-0,4</b>	<b>3,5</b>
<b>BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK</b>	<b>10.795.912</b>	<b>-6,6</b>	<b>-14,6</b>	<b>6,4</b>	<b>-2,3</b>	<b>-1,1</b>	<b>3,5</b>
BEZaren doikuntza	1.139.253	-7,2	-29,6	34,9	-3,8	7,8	5,9
Zerga berezian doikuntza	-183.050	-15,5	7,3	-9,4	52,6	-57,4	-96,0
<b>ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>11.752.115</b>	<b>-6,8</b>	<b>-15,9</b>	<b>8,4</b>	<b>-1,9</b>	<b>-0,6</b>	<b>3,0</b>

Iturria: Foru Aldundiak.

Aitzitik, sozietateen gaineko zergak, lehenago aipatu denez, gehikuntza tasa nabarmena erakutsi zuen, 2012ko %-2,5etik 2013ko %7,5era igaro zuelako. Goranzko bilakaera horren arrazoi nagusia itzulketen atalean mamitu zen beherakada garrantzitsua izan zen. Horrekin

## 2013ko urteko txostena

---

batera, arauzko dekretu batzuk indarrean sartu izanak, hala nola foru araudiaren azpian dauden enpresen balantzeak eguneratzeko modua arautzen duena, eragin positiboa ekarri zion zerga horren diru bilketari.

Zeharkako diru bilketak dituen atal nagusietan, zuzeneko zergetan ez bezala, gehikuntza tasa garrantzitsuak lortu ziren. Esate baterako, bertan kudeatzen den BEZak hobekuntza garbia erakutsi zuen, aurreko urteko %-4,4tik 2013ko %6,0ra. Hala ere, susperraldi hori ez zen kontsumo pribatuaren balizko hobekuntza baten ondorioa izan, halakorik ez baitzen gertatu, familien errenta erabilgarriak berriro murriztu zelako, baizik eta 2012ko urrian tipoek izan zuten igoeraren ondorioa.

Azkenik, zerga bereziek goranzko joerari eutsi zioten eta oso hazkunde tasa esanguratsuak erakutsi zituzten, %0,9tik %10,7ra areagotuta, zerga batzuetako tipoak igo zirelako. Hala ere, errenta erabilgarriaren jaitsierak eta kreditu faltak zerga horien ibilbidea oztopatu zuten, BEZarekin gertatu zen bezala.

## Finantza arloa

Nazioarteko merkatu finantzarioek bat egin zuten ekonomiaren susperraldiarekin eta 2013an zehar sendotasuna eta egonkortasuna berreskuratu zuten. Egoera makroekonomikoaren hobekuntzak –sendoa AEBetan eta Japonian, eta hasi berria Europar Batasunean eta Eurogunean-, herrialde garatuetako politika biziki laxoak eta duela gutxi arte finantza alorraren egonkortasuna mehatxatu zuten arrisku askotarikoen (Eurogunearen krisia, AEBetako *tapering* hasi izana, kapitalen irteera garatzen ari diren herrialdeetatik) murrizketak finantza merkatuen bilakaera ona ekarri zuten berekin.


Erreforma garrantzitsuak egin izanak, Alemaniako *bundaren* gorakadak eta Mario Draghiren hitzek EBZk “euroaren atzera bueltarik eza bermatzeko behar zen guztia” egingo zuela irmoki ziurtatuz, batez ere urteko azken zatian arrisku sariak gutxitzeko giro egokia sortu zuten, bereziki periferiako herrialdeetan, ordura arte zigortuagoak izan baitziren, pilatu zituzten desorekengatik.




Datu ekonomikoen hobekuntza argitaratzen zen heinean eta erakunde nagusiek Espainiarako hazkunde aurreikuspenak gorantz zuzentzen zuten neurrian, inbertitzaileen zalantzak uxatuz joan ziren, eta hori garbi hauteman zen arrisku sariaren bilakaeran, oso bizkor jaitsi zelako. Hain zuzen ere, 2013an zehar, Espainiako arrisku saria 399 oinarrizko puntuetatik 220ra igaro zen, 2011ko ekainean zuen mailatik oso hurbil. Europako periferiako gainontzeko herrialdeei dagokienez, Italiako arrisku saria 215 puntutan kokatu zen 2013ko amaieran, espainiarra baino zertxobait beherago. Portugaleko arrisku saria 410 puntutan kokatu zen eta Greziakoa, berriz, 663 puntutan. Azken horrek murrizketa handia egin zuen, 2012an 3.480tik gora baitzegoen.

### Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehunekoak


Espainia




Italia



Grezia



Portugal



Iturria: Espainiako Bankua.

## 2013ko urteko txostena

---

Oraindik finkatu gabe zegoen ekonomia susperraldiak herrialde aurreratuetako banku zentral nagusiak behartu zituen moneta politika oso laxoekin jarraitzeko. Hori horrela izanda, Europako Banku Zentralak (EBZ) bitan murriztu zituen interes tasa ofizialak, esku-hartzeko tasa %0,25ean eta gordailuaren interesa %0,0an kokatu arte. Halaber, likidezia eskaintza 2015eko ekaina arte luzatu zuen eta ez zuen baztertu interes tasak berriro jaitea ekonomiaren egoerak halakorik beharko balu. Izan ere, 2014ko ekainean, EBZk erreferentziako interes tasa berriro jaitsi zuen inoizko balio txikien batera (%0,15).

Erreserba Federaleko (FED) balizko *tapering* (ekonomian dirua sartzeko erritmoa moteltzea) baten inguruan ziurgabetasun handia zegoen arren, 2013an ez zen aldakuntza handirik gertatu. Prezioak egonkortzeko eta langabezia gutxitzeko egin zuen borrokan, Fed-ek esku-hartze tasa %0,0aren eta %0,25aren arteko urkilan utzi zuen eta ezohiko neurriak hartzen jarraitu zuen. Japoniako eta Ingalaterrako Bankuak ez ziren salbuespena izan, eta aldaketarik gabe eutsi zieten interes tasei. Japonian ekonomia jarduerak lortu zuen bultzadak eta Erresuma Batuan langabezia kontrolpean egoteak azaltzen dute erabaki hori.

Beste aldetik, inflazio presioaren etengabeko hazkundeak azaleratzen ari diren herrialdeetako banku zentralak moneta politika murriztaileak garatzera behartu zituen, kredituaren hedapena kontrolatzeko eta ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko. Brasileko Bankuaren gehikuntza azpimarratu behar da, erreferentzia tasak %10,0an kokatu zituelako, eta baita Indiako Banku Zentralarenak ere, bertako esku-hartze tasa %7,75era igo zuelako.


EBZk bideratu zituen erabakiek une jakin batzuetan euroaren balioa jaitea eragin zuten arren, 2013ko joera orokorra kontrakoa izan zen eta Europako diruak balioa irabazteko joera ezagutu zuen. Dolarraren aldean, euroaren truke tasa ia beti egon zen 1,33aren eta 1,34aren artean, nahiz eta 1,38 dolarreko trukea ere ezagutu zen une batean, Fed-ek pizgarriak kentzen hasi zitekeelako usteak eraginda. Orobat, Japoniako Bankuak bideratu zuen politika oso hedakorrak yenaren balio galera ekarri zuen gainontzeko dibisa guztien aldean, baina bereziki euroaren aldean, euro bakoitzeko 141,68 yen ordaintzera iritsi baitzen, eta dolarraren aldean, dolar bakoitzeko 100 yeneko trukea jaso zuelako.

Burtsako adierazle nagusiek, berriz, irabazi garrantzitsuekin amaitu zuten urtea. Kotizazioen gorakada horren oinarrian, moneta politika oso laxo horiei eutsi izana eta urtean zehar, baina bereziki bigarren erdian, argitaratu ziren datu makroekonomikoen bilakaera positiboa zeuden. Ekonomia aurreratu guztien burtsek bi zenbakiko irabaziak erakutsi zituzten. Esate baterako,


Dow Jones indizea %25,7 igo zen eta Eurostoxx-50k %12tik gorako irabaziak pilatu zituen urte horretan.

**EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak**  
Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.

Aipamen berezia merezi du Ibex-35 indizearen bilakaera, 2009tik lehen aldiz Espainiako burtsak irabaziak lortu zituelako urte amaieran. 2009an, Ibexen gorakada %30ekoa izan zen.


## 2013ko urteko txostena

---

Harez geroztik, finantza alorreko krisiak gorriz margotu zuen parket madrildarra, honako jaitsiera hauekin: 2010ean %17,4; 2011n %13,1; eta 2012an %4,6. Eurogunearen egonkortasunaz zegoen konfiantza handitu izanak, zorraren merkatuan zeuden tentsioak lasaitu izanak, banku zentralen politika hedakorrek, atzerriko inbertitzaileen itzulerak eta ekonomia atzeraldiaren amaierak Ibex indizeak 2013ko urtea %21,41eko igoera batekin bukatzea ahalbidetu zuten. Hala ere, indizea oso urrun dago oraindik 2009ko amaieran zituen 11.940 puntuetatik eta, are urrunago, krisiaren aurretik jaso zituen historiako balio gorenetatik, 15.945,7 punturekin.

EBZren moneta politika laxoagoa banku arteko merkatura hedatu zen eta horrek bide eman zuen interes tasa ofizialak murrizteko. Hain zuzen ere, urtebete baterako euriborra nahiko egonkor ibili zen 2013. urte osoan zehar, %0,50aren eta %0,59aren arteko urkila batean, baina maiatzean %0,484ra jaitsi zen, inoizko baliorik apalena zelarik. Esku-hartzeko interes tasa %0,5era jaitsi izanak ekarri zuen berarekin euriborraren beherakada hori, historiako gutxieneko mailarik txikiena ekarritz, eta bederatzi hilekoz jarraian egon zen euriborra diruaren prezio ofizialaren azpian.

### Urte baterako euriborraren bilakaera




Iturria: Espainiako Hipoteka Elkarteak.

Espainiako Bankuak bankuen maileguaz argitaratzen duen inkestaren arabera, 2013an zehar nolabaiteko joera aldaketa hauteman zen. Zor subiranoko merkatuetan bizi ziren tentsioen baretzeak, esku-hartzeen interes tasen jaitsierak eta ekonomiaren igurikimene hobekuntzak lagundu zuten espainiar enpresen finantzaziorako baldintzak hobetzen. Irizpideak leundu izanak bereziki enpresa txiki eta ertainei emandako maileguetan izan zuen eragina, baina ez zuen eraginik izan enpresa handietara zuzendutakoetan eta familiei emandakoetan, 2012ko laugarren hiruhilekotik lehenengo aldiz finantzazioko eskaria areagotu zuten arren. Urte hartan, PFEZean zegoen kenketa desagertuko zela zabaldu zenean, higiezinak erostera bultzatu zituen jende asko.


Aurreko guztiaren ondorioz, arlo pribatuari emandako kredituak %2,4 gutxitu ziren, nahiz eta gorakada garrantzitsua izan zuten 2012an pairatu zuten %8,5aren aldean. Tasa horren ondorioz, arlo pribatuak zorrak kitatzeko joera leunari eutsi zion eta 1.824,6 milioi eurotan gutxitu zuen 2012an zeukan zorra. Krisia 2008an hasi zenetik, arlo pribatuak 12.154 milioi euro baino gehiagotan murriztu du bere zorpetze maila. Zorraren jaitsiera horren handia izan den arren, berankortasuneko tasak gora egin zuen berriro eta 2012ko %6,6tik 2013ko %8,92ra igaro zen. Lan merkatuaren egoera kezagarria dago gehikuntza horren atzean.

### Kredituen eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainako Bankua.

## 2013ko urteko txostena

---

Espainiako Bankuak finantza erakundeei egin zien zaintza zorrotzaren ondorioz (bankuen erresistentzia proben emaitzak argitaratzea, sektorearen onbideratzea eta birmoldaketa), EAEko eragileek konfiantza berreskuratu zuten bankuetan. Izan ere, gordailu pribatuak %2,4 hazi ziren EAEn, gordailu horien truke ematen zen interesa txikiagoa izan zen arren, Espainiako Bankuak pasiboaren gerra deitu zenari amaiera eman ondoren, errentagarritasun muga jakin batzuk gainditzen zuten bankuei zigorrak egongo zirela iragarritz. Zehatz-mehatz, gehikuntza handiena ageriko gordailuetatik etorri zen (%26,2 gehitu ziren), likideziaren aukera garbia erakutsiz. Orobat, eperako gordailuak ere %1,5 hazi ziren, krisiaren aurreko urteetan, batez beste, jaso zen %27ko gehikuntzatik oso urrun dagoen tasa bat delarik, baina oso garrantzitsua dena, hiru urtean lehen hazkundea ekarri zuelako.